



Goierritarra

232. zenbakia

2002-12-18



Urteari
errepaso

FUJIFILMEN FRONTIER
SISTEMAREKIN
UNIBERTSO DIGITALARI
IREKITAKO LEIHOA

FOTOETXE





BERMEA
3URTE
100.000.Km

Land Rover kontzesionario berria ireki dugu Gipuzkoan. **EUROLAN 4x4**



THE LAND ROVER EXPERIENCE

EUROLAN 4x4 Donostia-Hernani errepidea (Galarreta) Telefonoa: 943 331 006



GARMENDIA

Tejas y cubiertas S.L.


VACSOL - WRR TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

Edozein motatako teilatuak
egiteko prestatuak,
komunitateak, baserriak,
txaletak eta abar

AZKENEKO AURRERAPEN GUZTIAK

AURREKONTUAK NEURRIRA



Maioz industrialdea, 25-26

ORDIZIA

Tel. : 943 161 032 / Faxa: 943 160 842

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

E-mail:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Erredakzioa: Iñaki Gurrutxaga

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Edurne Soraluze, Agurtzane Bikuña, Aitziber Murua, Iñaki Ugalde, Mari Flor Mendizabal, Aimar Maiz eta Edurne Huesa.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.300 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

*GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen
derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.*



*Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria*



Azken hilabeteetako gorabeheren ondoren

Bilore enpresa erregulazioan

Hamaika dira apiriletik hasi eta gaur arte Bilore enpresan ematen ari diren gorabeherak. Azken erabakia Zaldibiako lantegian aritzen diren 283 langileei eragin dien behin behineko erregulazio espediente txandakakoa izan da. Neurri hau Biloreko zuzendaritza berriak proposatutako langile batzordeari, bere hartzekodunei ordaintzeko baliabide ekonomikorik ez zuelako.

Horrez gain, langileei soldatarik ez ordaintzea erabaki zuen enpresak azaroaren hasieran. Hala, langileen batzordeak sindikatu guztien oniritziarekin adostu zuen txandakako erregulazio espediente, eta Madrileko Lan Ordezkaritzak onartu ondoren, indarrean jarri zen abenduaren 5ean. Erregulazio espediente horrek hiru hilabete iraungo du, eta tarte horretan langileak txandaka joango dira lanera.

Lehen kaleratuak, apirilaren 12an

Biloreko lehen kaleratzeak apirilaren 12an izan ziren. Orduan, 28 langile kaleratu zituzten. Horietatik gehienak emaku-

mezkoak ziren eta CCOO sindikatukoak. Kaleratu horiek baldintzak ahalik eta txukunenak izate aldera, hainbat bilera egin ziren, baina inolako akordiorik lortu ez zenez, kaleratuek epaitegietara jotzea erabaki zuten "jazarpen sindikala" izan zela salatuz. Donostiako epaitegiak langileen alde egin zuen, eta enpresak berriaz onartu behar izan zituen kaleratuak.

Irailean beste 55 kaleratu

Hala ere, abuztuaren hasieran, 55 langile-ri eragingo zien plan industrial bat aurkeztu zuen enpresak. Zerrenda horretan, aurrez kaleraturiko 28 langiletatik 26 zeuden. Negoziazioak hasi eta akordiorik lortzen ez zela ikusita, ELA sindikatuak PRECOn bitartekaritza eskatu zuen, baina Gipuzkoako Lan Ordezkaritzak langile horiek berriaz ez hartzea ebatzi zuen. Handik hona asko izan dira Biloren jazotakoak: zuzendaritzaren aldaketa eta hauteskunde sindikalak tarteko. Abenduaren 14an Administrazio Kontseilua biltzekoa zen Biloreren egoera ekonomiko kaxkarrari irtenbidea bilatu nahian.

Goierritarra Goierrikan kanpo jaso nahi dutenenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:	urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa:	urtean 24 euro
Europaz kanpo:	urtean 36 euro



Erantzun Eguna deitu dute biharrako Sozialista Abertzaleek

Goierriko Sozialista Abertzaleak taldeko zinegotziek Erantzun eta Protesta Eguna deitu dute abenduaren 19rako, biharko egunerako, alegia. Beasaingo udaletxean abenduaren 9an eskaini zuten prentsaurrekoan eman zuten ekimen horren berri: "Euskal Herriaren duintasunaren eguna balitz bezala irudikatu nahi dugu egun hau. Hori dela eta, sektore guztietan bi ordutako bi lanuzte aldarrikatzen ditugu: goizean 11etik 13ra eta arratsaldean 18etatik 20tara".

Bestalde, pasa den igandean, abenduak 15, Beasaingo Zubimuzu plazatik abiatuta 'Autodeterminazioa Euskal Herriarentzat! Demokrazia Orain!' lelopean egitekoa zen manifestazioaren berri ere eman zuten Goierriko Batasuneko zinegotzi izandakoek. "Salbuespen egoeran bizi garela salatu nahi dugu eta egoera berezi honi aurre egiteko asmoz, euskal herritarren eskubideen defentsa aldarrikatuko dugu", azpimarratu zuten.

Hala, Euskal Herriak bizi duen egoera politikoaren hausnarketa egin zuten, eta "Garzonen laguntzaz Estatu espainiarrak Euskal Herriaren aurka bideratzen ari den eraso" salatzeaz gain, Gasteizko Gobernuaren "jarrera lotsagarria eta erantzukizun gabea" gaitzetsi zuten, "Garzonen autoen parte aktibo bihurtu eta Euskal Herriaren zatiketaz aberaasten jarraitzen duelako".

Egoera horren aurrean, euskal herritar ororen eskubideak, indibidualak nahiz kolektiboak, bermatzeko konpromisoa berresten dutela adierazi zuten agerraldian: "Euskal nortasunaren, Euskal Herriaren aitortzaren eta erabakitze eskubidearen alde lanean jarraituko dugula aldarrikatu nahi dugu, eta horretarako, ezinbestekoa da kalean zein instituzioetan erantzun sendo eta zabal bat bideratzea", gaineratu zuten.



Ezabaketa Eguna antolatu zuen EHEk azaroaren 23an

Euskal Herrian Euskaraz talde euskaltzaleak Ezabaketa Eguna antolatu zuen azaroaren 23an "Euskal Herriaren hizkuntza eskubideen urraketak agerian utzi eta hizkuntza eskubide horien urratzaileak salatze" Hori dela eta, Goierriko EHEk Ordiziako anbulategian kartelak jarri eta ataria zigilatu zuen "osasun administrazioak euskaldunetako duen jarrera salatu eta Euskal Herriko mediku etxe guztietan dagokigun hizkuntza eskubideak bermatzeko eskatuz".

Horrez gain, Ipar Euskal Herrian, Nafarroan eta Euskal Autonomi Erkidegoan euskarak bizi duen egoera "kezkarriaren" berri eman zuen EHEk. "Ipar Euskal Herrian euskarak bizi duen egoera oso larria da, Frantziako Gobernuak ez baitu onartzen estatu horren menpean dauden hizkuntza gutxituen izaera. Nafarroan UPNk daraman hizkuntza politikak euskara desagertzera darama, eta EAEn PNVk duena ez da askoz hobea", dio oharrak.

Hala, EAJk zenbait euskal komunikabideei diru laguntza ukatu izana salatzen du Euskal Herrian Euskarazek. Horrez gain, Osakidetzan 1.713 lanpostu betetzeko antolatu dituen oposaketetan euskararen ezagutza baldintza bezala ez jartzea salatzen du erakunde euskaltzaleak, euskara meritu bezala baloratzea onartu baitute. "PNV, hori al da euskara maitatzea? Aski da, osasun administrazioan euskaraz", diote.

KEMEN KIROLAK

Zumalakarregi, 1
 ☎ 943 88 51 68
 ORMAIZTEGI

Iñauti
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
 602 Zbk. KOLEGIATUA


Jai zoriontsuak!
 RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
 ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

SEGURA IRRATIA

F.M. 89.2

EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN



Gabonetako produktuak salgai www.zerain.com helbidean

Zerain Parke Kulturalak egitasmo berri bat jarri zuen martxan irailean. Web gune berria ireki zuten, www.zerain.com. Orrialde horretan Zeraini buruzko informazio eta Parkeko eskaintza turistikoa erakustez gain, denda birtuala gehitu zioten. Denda horrek era eroso baten kalitatezko nekazal produktuak eta Euskal Herriko artisautza produktu adierazgarrienak erosteko aukera ematen du. Orain, Eguberriak gertu daudela eta, Gabonetako saskiak jarri dituzte salgai sarean.



Jakintza dantza taldearen errifak

Ordiziako Jakintza dantza taldeak atera berri dituen errifetan bi datu garrantzitsu falta direla jakinarazi nahi du ohar honen bidez. Abenduaren 22an ONCeren zenbaki sarituaren azken lau zifrekin bat datorren txartela izango da 600 euroko sariaren irabazlea.

Miren Aranburu lazkaotarrak 'Gorri isila' diskoa kaleratu du

Miren Aranburu Ensemble taldeak 'Gorri isila' izena daraman hirugarren diskoa kaleratu zuen azaroaren amaieran Gaztelupeko Hotsaken Errabal azpizigiluarekin. Diskoak 12 abesti biltzen ditu, eta horien artean Fernando Pessoa poeta portugésaren eta Bernardo Atxagaren bi poema musikatu aurki daitezke.

Kantari lazkaotarrak euskal olerkiak jazz doinueta moldatau ditu azken lan honetan, eta horretarako Jean Louis Har-gous saxo jotzailearen laguntza izan du. Diskoaren aurkezpen egunean azaldu zuenez, "harrigarria izan da euskara jazz doinueta egokitzea. Egia esan, ez da batere normala euskara molde honetan entzutea. Gure helburua, euskal olerkiak jazzera moldatzea izan da batik bat".

Patxi Zubizarretaren azken lana

Gasteizen bizi den Patxi Zubizarreta idazle ordiziarak bere azken lana aurkeztu zuen azaroaren 28an. 'Mila gau eta bat gehiago' liburu klasikoaren euskarazko bertsioa moldatu du Zubizarretak. 232 orriko liburu mardula da, eta Erein argitaletxeak kaleratu du, 'Gure klasikoak' bildumaren barnean.

Mila gau eta bat gehiago



Honela dio liburuaren erreseinak: "Ipuinak ipuinen ondortik, beraz, ipuina ipuinen barnean. Eta noizbait bakarren batek denak irakurriko balitu, hil egingo litzateke. Hala ohartarazten du liburu honek ezkututzen duen mehatxuak. Xerazade ere, istorio hauen guztien narratzailea, hiltzeko arriskuan egon zen liburuaren kontaketak iraun zuen bien bitarte guztian, eta soil-soilik ipuinen bitartez lortu zuen bere bizitza salbatzea. Xariar erregearen jakingosea pizteko, gau batez ipuin miresgarri bat kontatzeari ekingo zion, beste batez bidaia kilikagarri bati, fabulak ere kontatuko zizkion, edo ametsak, edo, besterik gabe, elkarriketa umoretsu, gordin eta lizunak".

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Promozioa: auto ordua 12 euro

Aita Urdaneta ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

GERTU aholkularitza



txekin

ENPRESA BERRIAK SORTZEKO
DOHAINEKO AHOALKULARITZA
ETA SUBENTZIOAK

BEASAIN
gertu.asesoria@terra.es
www.gertuasesores.com

Kale Nagusia, 2
Telf: 943 16 21 92
Faxa: 943 88 36 33

Gabon zoriontsuak
opa dizkizuegu
guztioi!

Aranburu

OINETAKOAK

☎ 943 88 01 27
Kale Nagusia, 36 BEASAIN



Karratu korrikalaria nagusi Azurmendiren aurkako apustuan

Xabier Cuadrado 'Karratu' korrikalari ordiziarrek irabazi zuen Iñaki Azurmendi aizkolari arriarandarraren aurka abenduaren 1ean jokaturako erronka. Karratuk 30 itzuli eman behar zizkion Zaldibiako plazaren inguruan prestatu zioten ibilbideari eta Azurmendik berriz 13 kanaerdiko ebakitzeko lana zuen. Elkarren aurkako erronkaz gain, norberak bere marka ezartzeko asmoz plazaratu ziren, baina hori ezinezkoa gertatu zitzaion. Azkenean Karratuk 25 minutu eta 56 segundo behar izan zituen 8 kilometro eta 100 metroko ibilbide osatzeko eta Azurmendik 29 minutu eta 33 segundotan ebaki zituen 13 kanaerdikoak. Alde bakoitzak 2.000 euro zituen jokatuak.

Almitze Segala Elkartearen 600 euroko saria Lasartera joan da

Almitze Segala Elkartek urtero atera ohi dituen errifaren irabazlea Mikel Sorrondegi lasarterarra izan da. Hernaniko Santa Barbara jatetxean erosi zuen sarituriko 9776 zenbakia zerman errifa. 600 eurotako saria Zaldibiako Nazabal Erretegian jaso zuen Sorrondegik Bixente Mitxelena segalariaren eskutik.



Goierritarrak ziklo-krosean gogor

Hasia da aurtengo ziklo-kros denboraldia eta indartsu ari dira txirrindulari goierritarrak maila ezberdinetan. Senior mailan, Zugaitz Ayuso itsasondoarrak hainbat 2. eta 3. postu loru ditu euskal txirrindularirik indartsuena dela erakutsiaz. Jubenil mailan Muebles Ordizia taldeko Hasier Mujika beasaindarrak oso indartsu hasi du denboraldia lehenengo lasterketan 2. eginez eta bigarren lasterketa irabaziz. Kadete mailan, berriz, Loinaz T.E.-Urrutia-Intersport taldeko Egoitz Berasategi, Gorka Izagirre eta Jon Urteagak hainbat lasterketa irabazi eta postu onak lortu dituzte.

Laguntzaile kanpaina bukaerara iristen

GOIERRITARRA-ren harpide gehientxuenek jasoko zenuten aldizkari honen deia laguntzaile kanpainaren berri emanez. Ahal izan den harpide guztiei egin zaie deia hau. Dena den, deia ez baduzue jaso, aldizkari honetako 28. orrialdean datorren txartela bete eta bidaltzea besterik ez duzue, GOIERRITARRA etxean jasotzeko laguntza emanez.

Datorren urte hasieran emango dugu zehazki kanpainaren emaitzen berri, baina azken balorazio hori egin aurretik, laguntzaile kanpaina-

ren balorazio baikorra egin beharrean gaude.

Abenduaren 26an kobraketa

Laguntzaileoi lehen kobraketa uztailean egin zitzaizuen. Harrezkero laguntzaile egin zaretenoi, batez ere Beasain eta Ordiziakoei, abenduaren 26an kobratuko zaizue aurtengo kuota kontu korrontetik. 12 eurotako kutoa hain zuzen ere.

Mila esker laguntzaile egin zareten guztioi. Goierritar guztion artean egiten dugu GOIERRITARRA aldizkaria.



Olagi
Sagardotegia
Eguerdietan ere zabalik
Urte guztian sagardotegiko menua eta karta
© 943 88 77 26 ALTZAGA

EDARITEGIA *Jar* **KAFETEGIA**
Urte Berri on!
Nafarroa Etorbidea, 27 ☎ 943 88 86 81 BEASAIN

Gabonetako pinuen bilketa antolatu du Sasietak

Sasieta Mankomunitateak Gabonetako pinuen bilketa antolatu du aurtengo Eguberrietarako. Egitasmo berri honen helburu nagusia bildutako pinuak bildu eta ongarri bihurtzea da, izan ere, asko eta asko dira behin Eguberriak pasatuz gero zakarrontzian bukatzen duten pinuak.

Bilketa berezi hau martxan jartzeko arrazoi nagusia azken urteetan herritarrek Sasieta egin dizkioten eskaerei erantzuna ematea da. Sasieta-ko arduradunek zehazten dutenez, Gabonetako pinuak berriro landatzea ezinezkoa da etxe barrutan asko hondatzen direlako, baina 'konpost' edo ongarria egiteko balio dute.

Hauxe da pinuak ongarri bihurtzeko jarraitu beharreko prozesua: pinuak lehendabizi txikitu egiten dira, eta ondoren, aireztapena, tenperatura eta hezetasuna kontrolatuz, ongarria sortzen da. Prozesu horrek bospasei hilabete behar izaten ditu. Sasieta-ko arabera, ongarri edo 'konpost' hau oso estimatua da gure herrietako berdeguneetako mantentze lanetarako, batez ere, landareak aldatzen diren garairako.

Datorren urtean esperientzia berri bat

Aurtengo berrikuntza hau da, baina datorren urtean dituzten egitasmoak ere aurreratu nahi ditu Sasietak. "Datorren urtean herritarrek etxean bertan ongarria egin



Bilketa noiz, non eta nola

Herri bakoitzean traste zaharrak biltzen diren egunean atera eta zabor edukiontzien aldamenean utzi behar dira pinuak. Urtarrilaren 6a 'Errege eguna' denez, traste zaharren bilketa eta pinuen bilketa hurrengo egunera atzeratu du Sasietak, abenduaren 7ra, alegia. Pinuak apaingarririk gabe atera behar dira. Azpiko taulan herri bakoitzari dagokion edo dagozkion egunak azaltzen dira.

HERRIA	1. bilketa eguna	2. bilketa eguna
Altzaga	28	---
Arama	28	---
Ataun	---	15
Beasain	7	13
Ezkio-Itsaso	24	---
Gabiria	10	---
Gaintza	21	---
Idiazabal	13	---
Itsasondo	14	---
Lazkao	8	15
Legorreta	14	---
Mutiloa	8	---
Olaberria	7	20
Ordizia	7	14
Ormaiztegi	---	17
Segura	8	22
Zaldibia	7	21
Zegama	8	22
Zerain	22	---

ahal izateko esperientzia berri bat bultzatu nahi dugu", diote Sasieta-ko arduradunek. Zeregin hori abian jartzeko hainbat hitzaldi eta ikastaro

txiki antolatuko dituzte, baina horren berri zehatzagoa datorren urtearen hasieran eman-
go dutela aurreratzen dute.

Sasietak egin duen zozketakaren irabazleak

Aurreko alean azaldu genuen moduan, Sasieta Mankomunitateak hamar urte bete berri ditu. Hori dela eta, zaborte-egiak izan duen bilakaeraren berri ematen zuen esku orri bat banatu zuten. Tartean, inkesta bat betetzeko gonbitea egiten zuen Sasietak, eta honakoak dira inkesta bete dutenen artean zozketa bidez ateratako irabazleak:

Nekazalturismoko egonaldia

Jose Ramon Erauskin
(Zumarraga)

Maria Jesus Telleria
(Legazpi)

Zabor-tasa dohain

Mari Luz Parra (Urretxu)

Jesus Alustiza (Ordizia)

Jose Carlos Ibarzabal
(Urretxu)

Kontxi Arrieta (Zegama)

Begoña Mendia (Ordizia)

Arana taberna (Ormaiztegi)

Jon Argiñarena (Legorreta)

Iratxe Vazquez (Beasain)

Danel Etxeberria
(Itsasondo)

Ana Maria Crespo
(Ormaiztegi)

Jose Luis Bastida (Beasain)

Jesus Mari Azkue (Segura)

Franziska Murgiondo
(Beasain)

Mari Fe Ramirez (Ordizia)

Marisa Eiguren
(Zumarraga)

Lide Agirrezabal (Urretxu)

Marcela Soto (Urretxu)

Marixabel Esteban
(Legazpi)

Idoia Arteaga (Ordizia)

Jovita Arruebarrena
(Urretxu)

Leire Etxeberria (Beasain)

Alida Molinero (Urretxu)

Arantza Arrieta (Ordizia)

Jone Olaskoaga (Idiazabal)

Jose Antonio Sanchez
(Zumarraga)

Autonomia eta agintea, norentzat?

Urteetan zehar errepresioaren bidetik, Estatu Espainiar zein Frantziarraren apustua eta estrategia zein izan den ezagutu dugu. Euskal Herrian demokrazia eta bake eskenatoki batetik urrun mantendu nahi izan gaituzte, oinarritzko askatasun zibil eta politikoen urraketa eguneroko ogia bihurtuz.

Behin eta berriro, eraso honen azken xedea Euskal Herria herri gisa, nazio gisa ez egituratzea zela errepikatu dugu. Batasunaren ilegalizazioarekin eraso honen aurpegi bortitza ezagutu dugu. Batasunaren jardura politikoa esparru instituzionaletik desagerrarazi, eta Euskal Herriaren aitortza eta eskubideen defentsa irmoki egiten dutenekin amaitu nahi dute. Halaber, euskal herritarrok salbuespen egoera ezarri nahi gaituzte.

Salbuespen egoeraren adibide gisa Batasunaren egoitzen itxiera dago eta nola ez, irailaren 14a; Bizkaiko hiriburuko Autonomia kalean agerian gelditu baitzen, legalitate espainiarren inposizioak batu eta elkartu egiten dituela, Madrilgo eta Gasteizko

botereak; azken horrek, morrontza handiz eta Ertzaintza-ren indarkeriaren bitartez.

Espezio egoera honen aurrean ezer ez, nola bada! EAJ hauteskondeei begira ipini da berriro. Ibarretxeren ahotsetik, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba batzen dituen Autonomirako proposamen bat gauzatu dute, Estatutuaren eta honen Konstituzioaren defentsa bermatuz. 1979an bezala, herri honek duen askatasun egarria aseko ez duen proposamena dela adierazi nahi dizuegu. Batetik, Autonomiaren aldeko itun berri bat gauzatu duelako eta PP-rekiko eta Madrilatik morrontzan jarraitzea derrigortzen gaituelako bestetik. Alegia, Euskal Herriaren zatiketa eta euskal herritarren existentzia ukatzailea bermatu eta herri honen eskubide unibertsalak baztertzeko dituelako.

Horixe izan da Euskal Herriaren, errepresioaren bidetik eta modu ironikoan, dialektika bera erabiliz ezagutu dugun errealitatea, konpetentzien inkompetentzia. Autonomia, Estatutua eta Konstituzioaren gerizpean bizi izan duguna. Ez dugu nahi iruzur gehiago, Euskal Herriaren boza entzutea nahi dugu. He-

rri honen aitortza eta dagozkion eskubideen aplikazioa baino ez dugu eskatzen.

baino ez dugu eskatzen.

*Ion Diaz Egurbide
(Legorretako Hautetsi
Independentista)*

Gaueko harrapariei

Pentsatzen hasita geunden gutaz ahaztuta edo zuen ekinbideak ahaztuak izango zenituztela, baina bai bai...

Antzekoak zenbait piztiak bakarrik egiten dituztela bagenekien, otsoek, azeriek eta koioteek adibidez. Ah! eta zuek, gaueko zelatari txapelokerrak. Zuek bai ausartak! Gaez, eta herritar oro lotan geundenean. Gutxienez, aipatu piztiak jan eta bizitzeko egiten dute eraso; zuek aldiz, kaltea egiteko soilik, ala, gerrako sari gisa?

Nonbait aurreko axioak nahikoa ez, eta berriro zuek dakizuten bakarra, gaueko eraso alegia, errepika duzue, eta oraingoan mastako ikurri-na puskatu eta lapurtzeaz gain, Euskal Presoak Euskal

Herrira galdetzen duen zapia ere eraman duzue, lokarriak askatzeko betarik gabe. Bejondeizuela zuen balentria!

Jakin ezazue zuek lapurtutakoak ordezkapena izango dutela, eta Elkarteko bazkideok erabakitakoa, herriak maitatzen dituenak izanik, berriro zuen muturren aurrean izango dituzuela. Jakin eza-zue baita ere, ekintza horrekin zuenganako gorrotoa besterik ez duzuela lortuko.

Agur eta inoiz arte!

*Patxi Calvillo Tolosa
(Ordiziako Argi Berri elkarte)*

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN

GESTORIA BIOK

ASEGURUOK

- ✖ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✖ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA



MUJKA LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 943 88 11 94

ORDIZIA

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

Tokiko agenda 21: hiriak eta herriak jasangarritasunerantz

Pasa berri den Johannesburgoko Garapen Jasangarriko Goi Bilkurak iritziz publikora zabaldu ditu planetako ingurumen arazorik nagusienak, baina lortutako akordioak ez dira planetaren egoera larriak behar dituenak. Garbi dago estatuetako gobernuek har ditzaketen akordioak oso garrantzitsuak direla ingurumen egoera globala dezentze hobetzeko, baina hiri eta herrietar hiritarron bizitza hurbiletik ukitzen duten hainbat erabaki eta proiektu martxan jartzen dira, Ingurumen globalari positiboki edo negatiboki eraginez.

Horretaz konbentziturik, 1994an Aalbor-
gen (Danimarkan) Europako 80 tokiko agin-
tariek Europako Hiri eta Herriak Jasangarri-
tasunerantz deitutako Aalborgeko Karta
izenpetu zuten, 1992an Rioko Ingurumen
eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Jar-
dunaldietan onartutako Agenda 21eko
printzipioak oinarritzat harturik. Aalborge-
ko Kartak Europako Hiri eta Herri Jasanga-
rrien kanpaina hasi zuen, jasangarritasuna-
ren alde lanean ari diren hiri eta herriak la-
gundu eta babesteko. Proiektu horrek ingu-
rumenaren babesaz gain, alderdi ekonomi-
ko, sozial eta kulturalak hartzen ditu bere
baitan.

Bai hiri, herri, nola mankomunitateek parte har dezakete Kanpainan. Karta onartu eta izenpetuz gero, agintariekin hitz e-

"Tokiko ingurumenaren kudeaketan ezinbestekoa da herritarren partaidetza"



parten dute Tokiko Agenda 21 prozesuan parte hartuko dutela, eta ekintza plan bat sortu eta burutuko dutela, jasangarritasunaren alde lan egiteko. Baina ekintza plan hori aurrera eramateko ezinbestekoa da herritarren partaidetza, bai udalerriaren diagnostika egiteko orduan, bai Ekintza Plana zehazteko garaian. Tokiko ingurumenaren kudeaketan mota guztietako erakunde, talde eta norbanakoek parte har dezakete: elkarateak, tokiko enpresek, adituek, komunikabideek, teknikariek, politikariek, ikastetxeek...

Gaur egun mundu mailan 200 gobernu baldin badira, horietako 18k bakarrik, Estatu mailako jasagarritasun planak martxan jarri dituzte. Berriz, 113 estatueta 6416 herri eta hiritan Tokiko Agenda 21ak martxan dira jadanik

Euskadin Gasteiz izan zen 1985ean Aal-borgeko Gutuneko kide egin zen lehenda-biziko hiri. Ondoren hurrengo urteetan hainbat herri eta hirik jarraitu dute bide hori. Gaur egun EAEn 59 hiri eta herritan Tokiko Agenda 21ak martxan dira, Gipuzkoan zehazki 26tan : Donostia, Tolosa, Urola Garaia, Arrasate, Azpeitia, Irun, Eibar..

Eta Goierrin, ez al dago Tokiko Agenda 21en beharrik?

Edurne Huesa

JAKIN BEHARREKOA

✓ **Zergatik migratzen du-
te egazti batzu gauez?**
Arrazoi garbirik ez badago
ere, hipotesi askoren ondo-
ren indarrean daudenak on-
dorengoak dira:

1. Egunez, gauzez egindako energi galerak berreskuratzeke jaten geratzen dira.
2. Harrapakarien atzaparretatik alde egiteko, horien presentzia ekidituz, ibilbidean lasai eta kontzentratuak joateko.
3. Egurats aldaketak saihesteko: Gauzez ez da turbulentzi handirik ematen, tenperatura baxuagoa da eta hezetasuna altuagoa, hegan egiteko giro aproposa. Gainera aire hotzak dentsitate gorena du eta hegaztiak mantenuan energi gutxiago behar dute. Deshidratazio arriskua ere txikiagoa da.
4. Haize boladen patroia ez da horren aldakorra, horizontalean jotzen duena geldoagoa da eta hegaztien norabidetik apenas desbideratzen ditu.

LIBURUA

“Tokiko Agenda 21 Euskadiko udalerrietan ezartzeko eta garatzeko gida praktikoa”, (Eusko Jaurlaritza 2000). Benetan praktikoa, prozesua azaltzeaz gain hainbat ekintza proposamen dakarzki.

Landar Lan taldeak egindako orrialdea
Taldean parte hartu edo qairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

Iñaki Mendiguren ezkiotarra itzulpengintzako Euskadi saria:

"Jatorrizko testu ona luzitua geratzen da itzulitakoan"

Itzulpengintzako Euskadi saria jaso eta egun gutxira Ezkioko bere etxean hartu gintuen Iñaki Mendigurenek. Etxean bertan lan egiten du. Ordenagailu eta posta elektronikoari esker du hori posible: "lehenengo itzulpena idazteko makinan egin nuen, harrezkero asko aldatu dira gauzak", dio irribarrez.

'Harry Potter eta sekretuen ganbera' liburuaren itzulpenagatik jaso duzu Euskadi saria.

Harry Potter bildumaren egileak 7 liburu idazteko asmoa du eta oraingoz lau kaleratu dira eta lauak euskaratu ditut.

Haur eta gazteen literaturan hain liburu lodiak argitaratzea ez da oso ohikoa, eta euskarara ez dira itzultzen. Hor zalantza handiak egon ziren itzultzea merezi zuen edo ez, arrakastarik izango ote zuen. Hizkuntza aldetik ere ez dira errazak, ez behintzat haur literaturan erabili ohi den hizkuntza sinplekoak. Argumentu aldetik ere ez dira oso errazak, liburu luzeak dira, arrakastarik ez izateko faktore asko zuten liburuak ziren. Egia da bigarren liburutik aurrera marketing ope-



razio handia egin dutela baina lehenengoak publizitaterik gabe izan zuen arrakasta.

Zer suposatu du zuretzat saria jasotzeak?

Buruko bat jasotzea baino hobe dela esaten dut beti. Aspaldian lan faltarik ez dut, eta nire bizitza profesionala ez da asko aldatuko. Dena dela, poza ematen du, lanean jarraitzeko animoa. Ez dut uste liburu batengatik soilik emandako saria denik, horrek bezainbat eragin izango du orain arte egindako lanak. Ehun bat liburu itzuli ditut eta hau baino liburu garrantzitsuak isilik pasa dira. Beraz egindako ibilbideari emandako saria bezala hartzen dut.

Ze zailtasun berezi izan du Harry Potterren itzulpenak?

Itzultzeko ez dira liburu zai-

lak, ingeles oparoa eta polita erabiltzen baitu egileak. Arazo gehiena, lehenengoan, hainbat gauza finkatzeak zuen. Liburuaren egileak hitz asko asmatu egin ditu, ingeles zaharreko hainbat hitz hartuaz. Horiekin bi joera daude, Frantzia dena itzuli egiten dute frantses kutsua emanez. Hori geroz eta gutxiago hartzen den bidea da eta nik nahiago izan dut ingelesezko izenak mantentzea. Ezinezkoa da liburuari ingeles kutsu guztia kentzea, eta nik erdibidea aukeratu dut.

Epaimahaiaren esanetan: "jatorrizkoaren prosa bizkor, arin eta oparoa doitzen jakin duzu".

Hori jatorrian dago. Jatorrizko testu on bat hondatu daiteke itzulpen txar batekin, baina egia da jatorrizko testu ona luzitua geratzen dela itzulita-

koan. Adibidez, Oscar Wilde itzultzea asko gustatzen zait, jatorrizko ingelesa oso oparoa eta aberatsa duelako. Harry Potterren kasuan ere oso ingeles ederra dauka, eta noski, behar adina denbora dedikatzen badiozu, eta behar adina esperientzi badaukazu, jatorrizko hori euskarara pasatzen da.

Zein da itzulpen bat egiteko prozesua?

Ingelesezko testuen kasuan lehenik testua kapituluka irakurri eta ondo ulertzen dudala ziurtatzen naiz, hiztegia lantzen dut. Lehenengo itzulpena egin, inprimatu eta jatorrizko testua ondoan hartuta ondo zuzendu eta aztertu. Testua erabat aldatzen da. Hori berriro ordenadorean sartu, inprimatu eta jatorrizko testua baztertzeko da. Orduan euskarazko testua irakurri eta zuzentzen da. Hori argitaletxean entregatu eta handik ere proposamenak egiten dituzte eta nik ikusten dut proposamen horiek jatorrizkotik asko urruntzen diren edo ez. Inprentara eramaten da eta handik etortzen diren lehenengo probak argitaletxean zuzentzen dituzte.

Noiz hasi zinen itzulpengintzan?

Duela 15 bat urte hasi nintzen. Nire lehen liburua Os-



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua eta karta.

MANDUBIKO BENTA
jatetxea

MANDUBIKO GAIÑEAN
Urolatik Goierriarako bidean

Tfnoa.: 943 88 26 73

kar Wilderen 'Printze zoriontsua eta beste ipuin batzuk' izan zen. Orduan irakasle nintzen, nekatzen hasitako irakaslea. Pixkanaka egin nuen trantsizioa: klase gutxiago eman eta itzulpenak egiten hasi, eta poliki-poliki klaseak gutxitu eta itzulpenak gehitzen joan nintzen.

Zein itzulpen mota egiten duzu?

Bi itzulpen mota egiten ditut: batetik haur eta gazte literatura eta bestetik enpresa komertzialen lanak, batez ere kooperatiba mundukoena.

Zein dira egin dituzun itzulpenik garrantzitsuenak?

Lan potoloak, hiru ditut eginak eta seguruenik ez dut gehiago egingo. Bat 'Elizen arteko Biblia', Dionisio Amundarainek zuzenduta talde lanean egin genuena. Pentsamenduaren klasikoak bildumarako 'Amerikako Demokrazia' Alexis de Tocqueville-ena, hau frantsesetik. Hirugarren lana, egin dudana erokeriarik handiena, 'Historiaren azterketa' da, Arnold Toynbee-rena. Gizon honek 10 tomotan munduan izan diren 30 zibilizazioen azterketa egin zuen. Bere lagun batek 1.500 orrira laburtu zuen eta nik itzuli egin nuen.



Iñaki Mendigurenek eleberri pare bate ere baditu idatziak. 1989an 'Altzak badu bihotzik' liburuarekin Kafe Iruña saria jaso zuen eta 1999an 'Iluntzeko Xuxurlak' lanarekin Irun Hiri saria. "Ez dut gehiago idatzi eta piska batean behintzat ez dut besterik idatziko. Itzulpenekin nahikoa dut, lan gutxiago banu, hasiko nintzateke zerbait idazten", dio Mendigurenek.

Azken 15 urteetan zertan aldatu da itzulpengintza?

Hobetu egin dela, dudarik gabe. Hizkuntza bera asko finkatu eta normalizatu da. Orain dela 15 urte gauza asko zeuden airean eta harrezkero Euskaltzaindiaren arauak asko finkatu dute hizkuntza. Hiztegigintzan asko aurreratu da, kontsulta liburuetan ere bai. Elhuyar, UZEI eta IVAPek lan handia egin dute.

Itzulpengintzak ez du misteriorik, beste edozein lanbidetan bezala, gakoa jardutea

da. Jardunez gero denborarekin hobetu egiten da. Denborarekin, itzultitako testuek hasieran ez zuten gozotasuna hartzen dute. Hasieran itzultzen ditugun testuak zurrunga izaten dira, jatorrizko testuarekin lotura handiegia izaten dute.

Geroz eta jende gehiago dago profesionalki honetara dedikatzen dena. Bi bilduma handi itzuli dira: literatura unibertsaleko 100 klasikoak eta pentsamenduaren klasikoak. Bi bilduma horietan itzul-

tzaile asko ari da lanean eta hori nabari da.

Zein hizkuntzatik itzultzen duzu?

Argitalpenetako itzulpen gehienak Elkarrentzat ingelestatik euskarara, eta Madrileko argitalpen batentzat Gaztelanitik euskarara egiten ditut. Gaur egun itzulpengintzan lan gehien ingeleratik euskarara dago. Lan komertzialak gehienak, berriz, gaztelanitik euskarara dira.

Egunkariako web gunerako itzulpena egiten duzue.

Emaztea ingeleza da, irakasle lanarekin aspertzen hasita zegoen eta zerbait berria egiteko asmoa zuen. Orduan jakin genuen Egunkaria sarean albisteak ingelesez emateko itzultzaile bila zebilela, gehien bat Ameriketara dauden euskaldunei eta Europako hainbat unibertsitatetako jendeari begira. Abuztuaren 20tik hasita horretan ari gara. Gaueko 12ak aldera 3 albiste nagusi bidaltzen dizkigute, goizeko 6etan jaiki eta itzultzen hasten gara. 11etarako 3 albisteak interneten jartzen ditugu. Igandeetan kaleratzen den elkarrizketa luzeren bat ere itzuli izan dugu. Geroz eta errazago egiten dugu, baina lan zaila da.

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Zorionak eta Urte Berri on!

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
 ☎ 943 88 40 57 ☎ 943 88 80 29
 ZALDIBIA BEASAIN

ONGI ETORRI

taberna - jatetxea

Eguneroko menua
 eguerdi eta gauetan
 larunbatetan ere bai

Afariak
 bataioak
 jaunartzeak

Tel: 943 88 99 07
 Oriamendi, 40 BEASAIN



LADA
 Ssang Yong

N-1, z/g
 ☎ 943 88 09 47

ARANDIA

Garajea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
 OLABERRIA

Eguberri on!

X kel

ARMAIRU

ENPOTRATUAK

NEURRIRA

Urdaneta, 41

☎ 943 16 16 06 - 619 770 600


ORDIZIA



Logoa eta leloa aurkeztu dira

Kilometroak 2003ko leloa 'Euskaraz bizi nahi dut' da, eta sakeleko telefonoetako mezu laburretan erabiltzen den grafia egokitu da logorako. Lelo eta logoa Laudioko Tramgrafik diseinu etxeak sortu ditu Unai Iturriagaren ideia batetik abiatuz.

Lelo honekin zera adiera zi nahi da: "Egungo gizarteak dituen premia guztiei erantzuteko gai da euskara. Euskaraz bizi nahi dugu eta euskaraz bizitzea posible dela aldarrikatzen dugu. Teknologia berriak euskaraz garatzeko erronka bere egiten dute Ikastolek".



Denda zabalik

Azaroaren 30az geroztik Kilometroak denda zabalik dago Lazkaoako Elozegi kalean (lehen Erosle zegoen lekuan).

Ordutegia:

Aste egunetan 17:00etatik 20:00etara. (Erregeak arte goizez ere zabalik egonda da 10:00etatik 12:30era).

Larunbatetan 10:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 20:00etara.

Aukera zabala:

Mota guztietako jantziak daude salgai, oinetakoak izan ezik. Bisuteria, gerrikoak, poltsak ere aurki daitezke. Kilometroak dendan. Gabonetako oparia egiteko aukera ederra.



Eguberri zoriontsuak eta Urte Berri on!

Berogintza

Iturgintza

Gasa

Klimatizazioa

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933

Nafarroa Etorbidea, 27

BEASAIN

Tailerra: Okorro, 6 - ORDIZIA



MAPFRE

ASEGURU TALDEA

Eguberri zoriontsuak!

Pello Barandiaran

☎ 943 16 13 61

**Jose Lasa, 3
LAZKAO**



AUTO ESKOLA

Ondo pasa gabonak!

Laister helbide berria!

Elozegi 19 LAZKAO

☎ 943 88 72 99



Azaroaren 29an egin zen Joxemiel Barandiaran Kiroldegian Kilometroak 2003-ren aurkezpen ekitaldia

Azaroaren 29an, Lazkaoko Joxemiel Barandiaran Kiroldegian, herritarren aurrean Kilometroak 2003-ko leloa eta logoa aurkeztu ziren. Aldi berean, Kilometroak neguko jantzien aurkezpenerako moda-desfilea egin zuten ikastolako haurrek eta herriko hainbat pertsona ospetsuk. Besteak beste: Joseba Beloki, Dionisio Amundarain, Xanti Auzmendi, Juan Mari Agirrezabala, Ekain Arruabarrena, Emilio Sanchez, Noemi Saralegi, Maider Urretabizkaia, Josu Konde...



Joseba Beloki eta Ekain Arruabarrena.



Pakea Garmendia eta Jon Urdangarin ekitaldiko aurkezleak, bien artean Xanti Auzmendi dutela.



Mota guztietako neguko jantziak aurkeztu ziren azaroaren 29an Lazkaoko kiroldegian.



Egun batez modelo lanak egin zutuzten hainbat lazkaotar ezagunek eta ez hain ezagunek.

AMEBI

Sagardotegia

Abenduaren 25etik urtarrilaren 6a arte itxita (biak barne)

TXOTX denboraldiaren
irekiera urtarrilaren 11n

Egun horretan sarrera doan eta gaua trikitilariak alaitua

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO

ARRIETA

*Eguberri zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

JATE TXEA

☎ 943 88 00 02 **OLABERRIA**

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21

☎ 943 16 07 06

ORMAIZTEGI

Blas Erkiziak psikopatologiaren euskarazko hiztegia kaleratu du: "Orain arte ez zegoen horrelako hiztegirik"

Blas Erkizia Amilibia Beasaingo Osasun Mentaleko psikiatra da, eta orain gutxi 'Psikopatologiako hiztegia' izeneko ale mardula kaleratu du. Hiru urte pasa ditu Erkiziak euskarazko hiztegi tekniko hau osatzen, eta zientziarekin eta psikoanalisiarekin zerikusia duten 700 sarrera bildu ditu.

Lan kontuak direla eta, Blas Erkizia kanpoan ibili da denbora luzez, eta euskara sekula galdu ez badu ere, historial klinikoak eta txostenak euskaraz egin ahal izateko gaitasuna erabat galdu zuela dio. "Euskal Herrira itzuli nintzeanean euskara lantzen hasi nintzen berriz ere, eta nire euskara berreskuratzeke eta idazteko gai izateko, nire lanarekin zerikusia zuen gai bat hartu eta Psikopatologiako hiztegiarekin lanean has-tea erabaki nuen", zehaztu du Erkiziak. Egutero egune-



Blas Erkiziak Beasaingo Osasun Mentaleko zentroan lan egiten du, eta denbora librean hau osatzeko erabili du.

ro pare bat ordu eskaintzen zizkion liburuari, eta hiru urte luzetan egindako lanaren emaitza da hiztegia hau.

Lehen hiztegia

Batez ere, bere buruarentzat eta arlo honetan aritzen den jendearentzat idatzi du Erkiziak hiztegi hau: "Psikologo-entzako, psikiatrentzako eta medikuentzako egin dut. Orain arte, euskaraz ez zegoen horrelako tresnarik. Eus-

karaz zerbait badago, Psikologiako Hiztegia, UZEIk kaleratutakoa, baina ez ditu kontzeptuak azaltzen, esanahia bakarrik ematen du. Lan hau zehatzagoa da".

Lana osatzeko garaian, gaztelaniazko liburu asko izan ditu lagungarri. "Liburu haietan azaltzen ziren hainbat kontzeptu itzuli, laburtu eta egokitu ditut. Gero kontzeptu batzuei garrantzia handiagoa eman diet, autis-

moari adibidez hemezortzi orri eskaini dizkiot", azpimarratu du.

Ale gehienak banatuta

Hiztegia osatzen hasi zenetik kaleratu arte hiru urte pasa dira, eta tarte horretan ere egilearen burutik hamaika kontu pasa omen dira: "Askotan nire buruari galdetzen nion zertan hasi nintzen, uzteko gogoa ere pasatu zait burutik behin edo beste, baina ingurukoek asko animatu naute, eta azkenean metodologia txukun bat hartuta, lanari behar bezala heldu diot. Azkenerrako gainera, lana errazago egiten nuela konturatu naiz".

'Psikologiako hiztegia' alearen kostua hainbat laborategiren kontura joan da. "Beraiei eskatu nien laguntza eta haiek jarri dute dirua. Nik ez dut euro bat jarri, ez euro bat jaso, eta horregatik banatu da doan", dio. Guztira mila ale kaleratu dituzte, eta dagoeneko 800 ale Hego Euskal Herriko hainbat laborategitan banatuta daude.

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

AZURMENDI

Harategi - Urdaitegia



Victor Mendizabal, 2 ☎ 943 88 47 65 ORDIZIA

San Inazio, 6 ☎ 943 16 16 74 - 943 16 13 28 BEASAIN

**OTEÑE
ERRETEGIA**

Bazkari, afari eta edozein ospakizun
ingurune paregabea



Larraitz bidea

GAINTZA

☎ 943 88 98 48



ZELAETA horts klinika

Zelaeta plaza, 1
BEASAIN
Tel.: 943 16 10 18



Filipineta kalea, 4
ORDIZIA
Tel.: 943 88 43 85

Zorionak eta Urte Berri on!

Odontologia orokorrean

Ortodontzia

Inplanteak

Periodontziak



Barandiaran **ZERAMIKAK**

Zorionak eta Urte Berri on!



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ **943 88 79 72**

Senpere, 7

BEASAIN

Ordiziako Tabernarien Elkartea

*Eguberri zoriontsuak
eta Urte Berri on!*



LEINEA



TABERNA



OIANGU
T A B E R N A
♦ ♦ ♦



HERRIKOA TABERNA



MIAMI
kafetegia



Martínez
Jatetxea



OLANO
TABERNA

ALDASORO
Taberna - Jatetxea



sugaar

Kalitatearen Zilarrezko Q saria jaso du Ordiziako Jakintza ikastolak

Ordiziako Jakintza Ikastolak Kalitatearen Zilarrezko Q saria jaso zuen orain dela pare bat hilabete Eusko Jaurlaritzako Euskalit fundazioaren eskutik. Hala, gisa honetako sari bat jasotzen duen Goierri mailako lehen ikastetxean bihurtu da Jakintza.

Kalitatearen Q saria EFQM (European Foundation for Quality Management) ereduaren barnean kokatzen da, eta Europako Elkartean dauken erakundearen kudeaketa eta praktika egokienak biltzen ditu. Eredu hau etengabeko hobekuntzan oinarritzen da, eta bezeroenganako orientabidea, beraiei iritzia kontuan izatea eta erakundearen pertsonen inplikazio zuzena eta partaidetza eskatzen du.

Mari Kruz Largo zuzendari administratzaileak agerraldian adierazi zuenez, ikastetxe izaeraren gestio atal nagusia irakaskuntza apendizaiak da; klaseak eman, tutoretza, ebaluaketa, orientazioa... "Oso eredu esigintza da. Horren lekuko dira gestio mailan oso aurreratuta dauden Irizar eta Orkli bezalako enpresak, hauek baitira orain

arte kalitate zeinu hau jaso duten Goierriko enpresa bakarrak", azpimarratu zuen. Sistema horrek eguneroko lanaren sistematizazioa, ordena, talde lana sustatzea, ardurak banatzea eta erabakiak hartzeko autonomia izatea suposatzen du.

Bost urteko lanaren emaitza pozgarria

Jakintza ikastolako ordezkariak 1996-97 ikasturtean hasi ziren Zamudiotik bueltara oinarritzeko formazio jasotzen. 1997. urtean EFQM taldea sortu zuten ikastolan, eta urte osoko lanaren ondoren lehenengo autoebaluaketa egin zuten, ikastetxearen puntu ahulak identifikatu eta hobekuntzak nondik nora joan behar zuten zehaztuz. 2000. urtean bigarren autoebaluaketa egin zuten eta 2001. urtean Kalitatearen Diploma lortu zuen Jakintza ikastolak beste 15 ikastolekin batera.

Momentuz, Euskal Autonomi Erkidegoko 21 erakundek soilik eskuratu dute Zilarrezko Q saria. Manu Olano Jakintza ikastolako zuzendari pedagogikoa pozik eta harro azaldu zen lortutakoarekin: "Ikastolako kideen lanak eta ikastetxearen garapenak poztu gaitu sariak berak baino gehiago". Aurrera begira, etengabeko hobekuntzarekin jarraitzeko asmoa dute.



Jakintza ikastolako irakasle taldea Kalitatearen Zilarrezko Q saria jaso ondoren.

Sorrera eta egungo egoera

Ordiziako Jakintza ikastola 1967. urtean sortu zen. Ordiziako Pelotazale garajearen hasi zuen ibilbidea 50 ikasle eta bi andereñorekin. Gaur egun, bi urtetik hasi eta hemezortzi urte bitarteko ibilbidea eskaintzen du Ikastolak, Haur Hezkuntzatik Batxilergoraino. Guztira 650 ikasle, 55 langile eta 462 familiak osatzen dute, egun, Jakintza Ikastola.

Bi eraikuntzatan banatzen ditu Jakintzak bere zerbitzuak: Haur Hezkuntza Ordiziako erdiguneko Villa Eugenia eraikinean eskaintzen du eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) eta Batxilergoa berriz, Altamiran. Haurtzaindegia, jangela eta autobus zerbitzuak ere eskaintzen ditu eta eskolaz kanpoko beste hainbat ekimenetan partehartzea ahalbidetzen du.



Arantxa
Lentzeria
Eguberri on!
J. M. Barandiaran, 3
943 88 76 15 **ORDIZIA**



BIÑASPRE

LURRINDEGIA
OPARIK
ESTETIKA ZENTRUA

Opariak
Gabonak 2002

K. Nagusia, 8

943 88 13 37

ORDIZIA

Zegamako Orkatx Txiki abesbatzaren 20. urteurrenaren harira 'Txori meterologoa' izeneko ipuin musikala eskainiko dute hilaren 29an, Zegamako elizan

Ospakizun urtea da hau Zegamako Orkatx-txiki abesbatzarentzat. 1981. urtearen bueltan sortu zen, eta harrezkero, hemezortzi urtez segidan eskaini dute euren kontzertua urteko azken igandean. Aurtengoa, ordea, Eguberri jaialdi berezia izango da.

Abenduaren 29an, arratsaldeko 19:00etan, eskainiko du Orkatx Txiki abesbatzak 'Txori meterologoa' izeneko ipuin musikala. "Narratzailea batek ematen du istorioaren haria, eta musikak eta abesbatzak hari horri musika jartzen dio", dio Leire Lozano abesbatzaren zuzendariak.

Emanaldi honen hastapen garaiaz hitz egiteko hiru urte atzera egin beharra dago. "Garai batean koruan beste giro bat zegoen, baina gaur egun, haurrek beste hainbat

ekintzetan parte hartzen dute, eta jendea erakartzeko zer edo zer berezia egin beharra zegoela pentsatu genuen", azaldu du. Hala, umeak egitasmo horren parte senti daitezzen, umeen laguntzaz istorio musikala bat prestatzen hasi ziren.

Profesionalen laguntza

Antzezen musikala hau osatzeko garaian, Joxantonio Ormazabal idazle zegamarra, Luis Elberdin musikari pasaitarra, Iñake Irastorza aktore zuzendaria eta Iñaki Epelde dekorazionistaren laguntza izan dute. "Ormazabalek istorioa idatzi du, Elberdinek pianoarekin lagundu digu eta Irastorzarekin antzezipena landu dugu. Horiez gain, Amaia Zubiriarekin umeen espresioa lantzen aritu gara", zehaztu du Lozanok.

Lan honen ardatz nagusia eguraldia da. "Irratian eta telebistan eguraldiaz hitz egiten dutenean asmatzen ez dutela dio obrak", azpimarratu



Orkatx Txiki abesbatzako partaideak.

du Lozanok. Narratzaileak Izarne izeneko lagun bat du, eta honek beti eguraldia asmatzen duen txori bat dauka. "Txoriak bere hizkuntzan kantatzen du, ez euskaraz, baina Izarnek ulertu egiten dio eta narratzaileak jakin-minenez jarraitzen du txoriak esandakoa", dio.

38 haur kantari

Gaur egun 38 lagunek, 30 neskek eta zortzi mutilek, osatzen dute Orkatx Txiki

abesbatza. Lozanok dioenez, "proiektu berriak sortzeak jende berria sartzea ekarri du. Aurten 16 ume sartu dira". Haur gehienak zazpi eta zortzi urte bitartekoak dira, baina bik 16 urte bete dituzte eta datorren urtean Orkatx abesbatzara pasako dira. "Normalean helduen taldea sortzen da eta gero haurrena, baina hemen alderantziz. Mutilei ahotsa loditzean sortu zen Orkatx abesbatza 1987. urtean", zehaztu du.

mazda
Bikar, S. A.



☎ 943 889 296 Faxa: 943 887 952

N-1 errepidea, 419 Kma **BEASAIN**

GABINETE PSIKOLOGIKOA
ARPE
* Depresioak * Beldurrak
* Harremanetarako arazoak * Antsiak
* Segurtasun eza
Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
☎ 943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ez. **BEASAIN**

Pedro Jose Landa Gutierrez
PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

JAUREGI
TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33
BEASAIN



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.

Segurako Erosle, **Idiazabal**go Ahizpak eta **Ormaiztegi**ko Iñaki Erosle.

Urtiarrila



13: **Astotxo eguna** ospatu zuten Lazkaon. Aldi berean, asto lehiaketa ere jokatu zen eta Hernaniko Gurrutxagaren astoa izan zen irabazle.

11: **CAF-Elhuyar** Zientzia Dibulgaziorako VIII. sariak banatu ziren Lasarten. Iñaki Peña, Leire Eskajedo eta Gorka Oliveri izan ziren sarituak.

13: Xepeño Agirre, Antonio Agirre, Martxeliño Agirre, Jexux Mari Intxausti eta Jokin Izagirre segurarrek osatutako taldea **Gipuzkoako bola txapel**dun izan zen.

14: **Seguran ume txo-**koa zabaldu zuten, turismo bulegoa izandako aretoan.

18: Beasaingo eta Ordiziako udalek antolatutako **Antzerki Garaia** hasi zen.

19-20: Beasaingo **Garin auzoan** San Sebastian jaiak ospatu zituzten.

20: **San Sebastian eguna** ospatu zuten Seguran, izen bereko ermitan.

27: Idiazabalgo **XXI. Herri krosa** jokatu zen.

hau ere bai

✓ **ONCEk** antolatutako II. Literatur lehiaketan **4 ataundar izan ziren sarituak:** Ane Dorronsoro, Josu Munduate, Oñeka Auzmendi eta Izaro Imaz.

✓ **Goilan Fundazioak** kooperatibei buruzko jardunaldiak egin zituen Goierri Lanbide Eskolan.

30: Lazkaoko **Ramona Albizuk 100 urte** bete zituen.

30: **Jose Antonio Dopazo,** Lazkaoko PSE-EEko zinegotziak bere kargua utzi zuen, arrazoi pertsonalak argudiatuz.



26: Segurako Udalak **Nestor Basterretxeari eskerrak** eman zizkion. XXV. Euskal Herriko dantza txapelketako egunean egin beharreko ekitaldia, beraz, egun honetan egin zen.



Gabon

zoriontsuak denoi!

Artesania Opariak

K. Nagusia, 28
© 943 16 02 48
ORDIZIA

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA



**ORDIZIA
BIDEO
KLUBA**

© 943 88 79 19

Domingo Unanue, 1 ORDIZIA

Gabon jai zoriontsuak pasa ditzazuela!



HIDALGO

Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak

Legazpi Kalea, 3 943 88 04 06 ORDIZIA

Diseinua

Berrikuntzak

Kalitatea

Garantia

Otsaila

1: Beasaingo Igartza jauregian **'Ars Ligneo: Zurezko Elizak'** erakusketa inauguratu zen.

2: **J.A. Dopazo** Lazkaoko PSE-EEko zinegotzi ohia auto-istripuan hil zen.

2: Idiazabalek eta Olaberriak muga egiten duten lekuan, Ojartitik gora, sua piztu eta **45 hektarea erre ziren**.

2: Ordizian, inauterien atariko gisa, galdaragileak edo **kaldereroak** izan ziren bisitari.

2: **Oinatz Munduate** Idiazabalgo txirindulariak munduko ziklo kros txapelketan parte hartu zuen. 53. lekuan amaitu zuen lasterketa.

3: Legorretan **elkartasunezko talo jan festa** antolatu zuten Ugao Herri Eskolak eta Udaleko Kultura Batzordeak.



3: **San Blas jaiak** ospatu ziren Idiazabalen.

3: **XII. Beasain idazlan lehiaketako** sari banaketa egin zen. Jón Muñoa, Irati Goikoe-txea, Maitane Larrañaga, Jokin Gartzia, Aritz Aranburu eta Xabier Meabe izan ziren maila bakoitzeko irabazleak.

4: **Santa Ageda eskean** aritu ziren hainbat talde Goierriko herri ezberdinetan.

4: **Josetxo Zufiaurre** beasaindarrak, Beasaingo erlijio arloko ondarea biltzen duen katalogoa aurkeztu zuen.



28: Sasieta zaborteagian **BioSasieta S.A.** inauguratu zuten. Zaborrak sortzen duen gasa elektrizitatea bihurtzen du BioSasietak.

5: **Loinazko San Martin eguna** ospatu zen Beasainen. Odolkiaren Kofradiak ere ospakizunak izan zituen eta Txiki Begiristain, Josune Bereziartu eta Juan Mari Arzak izendatu zituzten ohorezko kofrade.

8: **Inauteriak** ospatu ziren Goierriko herri ezberdinetan.

8: **Aramako taberna** berri ireki zuten.

16: 50 marokoarren **autobusak** sua hartu zuen Etxegaraten eta Idiazabalen aterpea eman behar izan zioten.

17: **Erlezaintzari lotutako azoka berezia** ospatu zuten Zegaman. Gipuzkoako ezti txapelketa Añorgako Aitor Bartsok irabazi zuen. Eztiz eginiko postre lehiaketa, berriz, Pamela Gonzalez eta Jeam Bertrandek irabazi zuten.

19: 'Estepako arnasa' **diaporama** aurkeztu zuen Jose Ramon Agirre 'Marron' Ataungo mendizaleak.

27: **Eugenio Irastortza** presoak 22 urte bete zituen kartzelan. Bere askatasuna eskatzeko mobilizazioak egin ziren.

hau ere bai

✓ **Ampo-Poyam** kooperatiba MCCn sartu zen.

✓ **Topagune eta Elkarrizketarako Goierriko Ekimenak** 'Euskal Herriaren bakeratzeari buruzko' hitzaldiak antolatu zituen Beasainen.

✓ **Jabier Imaz beasaindarrak** urrezko domina eskuratu zuen ezinduentzako XII. Pirinioetako eski kopan.

14: Gipuzkoa **barnealdeko turismoa sustatu nahian**, natura eta landa gunek biltzen dituen liburuxka aurkeztu zuten Goierri, Debagoiena, Urola Goi eta Behea eta Tolosaldeko turismo arduradunek, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

NAGASAKI
Taberna

Urte Berri on!

☎ 943 88 15 67

J. M. Iturrioz BEASAIN

Gabon zoriontsuak!

ASTI

Zaldizurreta kalea

☎ 943 88 45 06

BEASAIN

Pub **YUBER** Pub

Umore onez zorionak eta Urte Berri on!

Zaldizurreta K. BEASAIN

Martxo



13: Beasaingo **Txindoki-Alkartasuna Institutuak**, ISO 14001 ingurumen kudeaketa ziurtagiria jaso zuen.

2: Ordizian, **Hegats igeri-
ketako II. Nazioarteko
proba** jokatu zen Majori kirol-
degian. Tafallako Juanjo Iturralde
izan zen irabazle.

3: Gabirian, **IV. Rally
sprinta** jokatu zen. 10.000 la-
gun bildu ziren 48 auto ikusteko.
Azkenean, Alegiko Goritz Gar-
mendia izan zen irabazle.

3: Zerainen, Endika Alustiza
bola memoriala jokatu zen.

4: Beasaingo **tunela itxi
zuten**, Donostia alderakoa, hiru
hilabeterako, konponketa lanak
egiteko.

4-10: **Kultur astea**
ospatu zuten Olaberrin.

6: **Ikasle Abertzaleak**
taldeak greba deitu zuen eskual-
deko ikastetxeetan 'Lege arrotzei
intsumisioa, euskal hezkuntza sis-
tema nazionala orain' lemapean.

hau ere bai

✓ **www.igartza.net** webgunea ireki zuen Beasaingo Udalak.

8: **Nazioarteko Emaku-
mezko Langileen eguna**
ospatu zen Goierriko herrietan.

9: Gipuzkoako Foru Aldun-
diak, Goierrialdea enpresarekin
elkarlanean, **larunbat gaue-
tako autobus zerbitzua** ja-
rri zuen martxan.

10: Seguran, **Eskolarte-
ko XV. ibilaldi neurtua** jo-
katu zuten Goierri eta Urola Ga-
raiko ikasleek.

14: **'Beasain Jaietan'** al-
dizkariaren ale zaharren aurkezpe-
na egin zuen Igor Buenok. Ze-
hazki, 1923, 1925 eta 1926. urte-
ko aleak.

16: **Tere Irastortza** zal-
dibiarra Euskal Idazleen Elkarteko
lehendakari izendatu zuten.

22: **III. Igartza Litera-
tur sorkuntza bekan** saritu-
tako lana aurkeztu zen: Fernando
Morcilloren 'Ortzadarra sutan'.



24: **II. Lore eta landa-
reen azoka** izan zen Seguran.

24: Zaldibiako **Miel An-
tonio Sukiak 100 urte** bete
zituen.

28-31: **Aste Santu-
ko prozesioak** eta elizkizunak
izan ziren Seguran.

31: **Aberri Eguna** ospatu
zuten alderdi abertzaleek Goierri-
ko herri ezberdinetan.

KiTTó

ITURRALDE, 1
BEASAIN
☎ 943 16 19 39

ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON GUZTIOI!

OSINBELTZ

ZALDIZURRETA, 1
BEASAIN
☎ 943 16 19 35

LOINATZ

Taberna
Jatetxea
Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27



☎ 943 88 20 07
BEASAIN

Basakana



Iturriotz, 11 beasain

Urte Berri on!

ARANA, 1
☎ 943 88 93 88
BEASAIN

**LURRAZPIKO
JAIA !!**



Apirila



3: **Artzain eguna** ospatzeko azoka berezia izan zen Ordizian. Idiazabal Gaztaren denboraldi berriaren adierazle den gazta ebakitzea, Alaves futbol taldeko Gonzalo Antonen lana izan zen.

1: **Saturdiko festa** ospatu zen Zaldibian.

2-6: **Gazte Kultur astea** izan zen **Zegaman**, Gazte Herexak antolatuta.

6-14: **Kultur astea** ospatu zuten **Gabirian**. 6an, XXXI. Bertsolari Gazteen Osinanalde bertso sariketa jokatu zen eta Iker Zubeldia beasaindarra izan zen irabazlea.

9: Acerlorreko **LAB sindikatuak deituta**, planteia egin zuten, besteak beste, 2002. urterako lan egutegiak ez dizkietela ematen salatuz.

14: **75. Loinatz txirringularitza klasikoa** jokatu zen Beasainen. Aitor Perez Arrieta zegamarra izan zen irabazle.

7-24: **Lazkaon Kulturaldia** ospatu zuten. 14an, Dionisio Amundarain omendu zuten lazkaotarrek.

12: Goiturrek **hiru turismo proiektu berri** aurkeztu zituen Idiazabalen: Goierriko bidetia, bono turistikoa eta eskualdeko nekazalturismoko etxeen esku orri berria.

8-14: Seguran, Elorri Kultur Elkartek antolatuta, **VII. Iparr-Hegoa astea** ospatu zen.

17: **Patxi Ezkiaga** Legorretako poetak, 'Uso bat gehiago' liburua aurkeztu zuen.

19: **Joxe Insausti** segurar bertsolariak, 'Beti bertsoa buruan' bertso idatzien liburua aurkeztu zuen Seguran.

19: Ezkio-Itsasoko **Jose Mari Zaldua Korta**, ustezko ETA kidea atxilotu zuen Frantziako Poliziak Ziburun.

19: **Dantzari Txiki eguna** ospatu zuten Zaldibian.

hau ere bai

✓ Zaldibiako **Bilore enpresak 28 langile kaleratu zituen**. Handik aurrera ekimen ugari egin dira eta egiten ari dira, kanporatzea salatzeko.

✓ Goierriko Batasunak, **Goierriren Plan Estrategiko berria** egiteko eskatu zion Goiekiri, aurrekoa zaharkiturik dagoela eta.

✓ **Ormaiztegi** Saharako Dairak de Miyek herriarekin senidetu zen.

✓ **Dioni Galparsoro** Ataungo txirringularia sasoiaren ibili eta lasterketa bat baino gehiago irabazi zituen.

19: **Euskal Kantu txapelketako** azkeneko finalaurrekoa jokatu zen Beasainen.

20-27: Bi larunbategitan **Udaberri Gaztea**-ko ekitaldiak ospatu ziren Beasainen.

21: Segurako **Santa Engrazi ermitan**, hazi bedetinkatzea egin zen.

23: **Euskara Plana** duten enpresak elkartu ziren Goierriin.

23: **Liburuaren Nazioarteko Eguna** ospatu zuten Lazkaon.

24: **Andoni Urrestarazu** Ordiziako presoak aske gelditu zen, 8 urte kartzelan egin ondoren.

26: **Olaberriko udaletxe berria** inauguratu zen.

26: **Joxan Ormazabal** Zegamako idazleak, 'Irri eta barre' liburua aurkeztu zuen.

26: **Lazkaon San Prudentzio jaiak** hasi ziren.

27: Beasainen, belar artifizialeko Igartza **futbol zelai berria** inauguratu zen.

27-28: **Apirileko Feria** ospatu zuten Beasainen.

27-28: Ormaiztegiko **Bardularrak elkarteak** 25. urteurrena ospatu zuen.

28: Olaberriko **lurre azoko jaiak** hasi ziren.

28: **Loinazko San Martinen irudi berria** jarri zuen Aizkorri Mendi Elkartek, Igartzako ermitan. Irudi berria Ja-bier Arrietak egindakoa da.

29: Batasuneko Mahai Nazionalakidea, **Jon Gorrotxategi** beasaindarra, atxilotu zuten. ETArekin fidantza sarearekin lotura izatea leporatu zion Baltasar Garzon epaileak.



MIRENTXU

Gabon
zoriontsuak
denoi!

LIBURUDENDA • OPARIAK • PAPERDENDA • FOTOKOPIAK • FAXA



**MONT
BLANC**

GABONETAN:

- JAIOTZAK
- GABONETAKO
APAINGARRIAK
- OPARIAK

Kale Nagusia, 1

☎ 943 88 14 57

BEASAIN

Nafarroa Etorbidea, 7

☎ 943 88 04 55



elosegi

ARDOTEGIAK



AENOR



Empresa
Registrada

ER-9683/2/97



Tfnoak: 943 88 09 79 - 943 16 19 98 - Fax: 943 88 80 89
201 Polígonoa - OLABERRIA - belosegi@telefonica.net

Maiatza

1: Enirio-Aralar Mankomunitateak antolatutako, **Aralarko larren irekitzeko festa** izan zen Larraitzen. Artzainek protesta egin zuten eta ez zuten ardirik eraman festara. 'Larren irekiera gaur. Bideena noiz' leloa zuen pankarta jarri zuten artzainek Larraitzen. Gainerakoan, festa giroa izan zen nagusi.

3: **Txindoki-Alkartasuna** Institutuko antzerki taldeak, Buero Vallejoren 'La doble historia del Doctor Valmy' antzezlanak aurkeztu zuen.

5: Idiazabalen, **V. Idiazabal Gaztaren eguna** ospatu zen. Hego Euskal Herriko 20 artzain bildu ziren Idiazabalen eta 400 kilo gazta doan banatu zituzten. Idiazabalgo 69 urteko Joxe Agirre artzainak jaso zuen herrikoen omenaldia.

8: Legorretan eta Ezkion **herriko jaia** hasi ziren.

10: Beasainen **Loinatz jaia** hasi ziren.

12: Seguran, **Santa Barbara eguna** ospatu zuten Kortaberri auzokoek.

12: **Altzagarateko jaia** ospatu zuten, Altzagan.

15: **San Isidro eguna**, baserriarren eguna ospatu zen Goierriko herri ezberdinetan.

15: **Gaintzan**, San Isidro eguneko ekitaldien barruan, hiru omendu izan ziren: Juan eta Matias Telleria eta Santi Garmendia.

17: Ostiral arratsaldeetan, **kalitatezko produktuen azoka** egiten hasi ziren Ordizian.

17: **Igartza Multimedia gunea**, Igartzako multzoaren multimedia informazio gunea aurkeztu zuten Beasainen.

18: Nazioarteko Museo eguna ospatu zuen Ormaiztegiako **Zumalakarregi museoak**.

19: Zegamarrak **Arantzazura erromesaldia** egin zuten egun honetan eta hurrengoan.

19: Beasaingo Maria Agirre Tolosak **100 urte** bete zituen.

19: **Mendi ibilaldi neurtua** jokatu zen Ataunen, Ataun Kirol elkarteak antolatutako.

25: **Olaberrin**, I. Pintura lehiaketa jokatu zen. Arrasateko Mila Garmendia izan zen irabazlea.

25: **Itsasondon** afizionatu mailako txirrindulari lasterketa jokatu zen, Ijitu Kirol elkarteak antolatutako.

26: Idiazabaldarrek **San Adrian eguna** ospatu zuten.

29: Legorretan izan zen **lan istripuan** P.L.R. 41 urteko Zumarragako langilea hil zen. Heriotza salatzeak bilkurak egin ziren istripua gertatutako lekuan.

hau ere bai

✓ Maitzaren 11an bahitu zuten **Ramon Arizmendi Garmendia** ordiziarra aske utzi zuen Farc gerrillak.

✓ **Xabier Mendiguren Elizegi** idazleak, 'Errautsen distira' liburua argitaratu zuen, 1936ko gerraren oroitzapen eta bizipenen bilduma.



✓ **Zaldibiako Udalak** mapa toponimikoa argitaratu zuen.

✓ **Zeraingo gazteek** Frantziar Estatuko Dordogna eskualdeko gazteekin harremanak sendotzeko topaketak izan zituzten.

✓ **CAFek** egindako lehenengo Bilboko tranbia Bilbora eraman zuten.

✓ **Ertaroko azoka** ospatu zen Ordizian.

✓ **Poltsikoko ikuskizunak** kultur programako ekitaldiak izan ziren Ordizian.

✓ **Goiturrek**, Uribe eskualdearekin turismo sustapenerako hitzarmena sinatu zuen.

✓ **Pako Aiestaran** Beasaingo prestatzaile fisikoa Espainiako Futbol Ligako txapeldun izan zen, Valentzia futbol taldearekin.



✓ **Iñaki Azurmendi** Arriarango aizkolariak, Urrezko Aizkoran final laurdenetaraino iritsi zen, Erdozia, Senosiain, Txapartegi eta Etxeberria gailenduta. Final laurdenetan, Olasagastiren aurka galdu zuen.



30: **Sasieta Mankomunitateak** eskualdeko ikastetxeen artean antolatutako jostailu lehiaketako sari banaketa egin zen. Zumarragako La Salle-Legazpi, Beasaingo Murumendi eta Zaldibiako Lardizabal ikastetxetako ikasleak izan ziren sarituak.

30: Apirilaren 19an Frantziako Poliziak atxilotutako **Jose Mari Zaldúa** ezkiotarra, libre gelditu zen.

31: **LAB** sindikatuak, Beasaingo Indar enpresan, 'LanEus I.Mintegia: Lan munduan euskaraz' jardunaldia egin zuen.

Ekaina

1: Legorretan Corpus Christi eguna ospatu zuten.

2: Corpus Christi eguneko ekitaldiak izan zituzten **Seguran**.

2: **Beasain-Aizkorri** mendi ibilaldi neurtua jokatu zen, Beasaingo Aizkorri Mendi Elkar-teak antolatutik. 279 mendizale abiatu ziren Beasaingo plazatik. Iritsi, berriz, 245 iritsi ziren.

7: Zumarragako Beloki pilotalekuan jokatu zen Gipuzkoako **Eskolarteko Bertsolari txapelketan** 4 goierritarrek parte hartu zuten: Aitzol Munduate, Iban Urdangarin eta Oier Zurutuza ataundarrak eta Jokin Murua gabiriarrak.

9: **Artisau eguna** ospatu zuten Idiazabalen.

9: **II. Dantzari Txiki eguna** ospatu zuten Legorretan.

14: Upabi **tuneleko obrak** bukatu zituzten.

15-16: XXVI. Euskal Herriko **dantza txapelketa** jokatu zen Seguran. Hernaniko Parrondo anai-arrebak izan ziren txapeldunak.

16: Ataunen, **Zaharkinak** erakusketa inauguratu zen.

16: Legorretan, **Pako Es-kitxabel** presoaren askatasuna eskatzeko bizikleta martxa egin zuten.

16: **San Adrian eguna** ospatu zuten zegamarrek.

16: **Eugenio Irastorza** Ordiziako presoaren askatasuna eskatzeko 'Eugenio Etxera!' aldarrikapena egin zuten Ordizian. 'Eman urratsa' lelopean, Ordiziako 28 elkarte, pertsonaia eta erakunde ezberdinek bat egin zuten. 22 urte daramatza kartzelan Irastortzak eta legearen arabera 1995etik kalean behar luke, zigorraren hiru laurdena beteta.

16: **Zegamako Ostatua** berriz ireki zen.

20: Ormaiztegiko udaletxean **ezohiko udalbatzarra** egin zen. Iñaki Maiora alkatearen dimisioa eskatu zuen oposizioak.

24: **San Joan jaiak** ospatu ziren Seguran, Olaberrian, Ordiziako Otegi-Majori auzoan...

25: Lazkaoko **San Benito ikastolako ikasleek** Osasunkume saria jaso zuten.

26: Gabiriako **Ander Geresta** presoaren epaitu zuten Parisko epaitegian.

29: **Goierri-Lapurdi-Xareta** turismo lankidetzak hitzarmena sinatu zuen Goiturrek.

29: **San Pedro jaiak** ospatu ziren Mutiloan, Ezkio-Itsasoko Santa Lutzi-Anduaga auzoan...

hau ere bai

✓ **On Segundo Dorronsoro** Ataungo apaiza hil zen.

✓ **Ataungo EAJk** Jesusa Etxeberria eta Julian Munduate jeltzaleak omendu zituzten.

✓ Beasaingo Udala, **Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia** egiten hasi zen.

✓ Beasaingo **Igartza jauregian**, Poltsikoko ikuskizunak izan ziren ekaineko ostegunetan.

✓ Ordiziako **Kimetz Emakume Elkar-teak** antolatutako ipuin lehiaketa, Zigor Etxanizek euskarazkoen mailan eta Jose Luis Nuñez gaztelarazkoan, irabazi zuten.

✓ Euskaldunon Egunkariaren Xingola gehigarriak Ataungo eskolako **Eguzki Berri aldizkaria** saritu zuen.

✓ Arabar Errioxako **ardoaren X. astea** ospatu zuten Ordizian.

✓ Ordiziako Errugbi taldeak antolatuta, **Garagardo festa** izan zen Ordizian.

✓ Ekainean, **Oto Festa 2002** ospatu zuten Ataunen. Iñaki Aierbe aizkolaria, Ruth Kaiero sokatiralaria, Iker Sukia atleta, Egoitz Sukia futbolaria eta Diorni Galparsoro txirrindularia omendu zituzten, besteak beste.



✓ **Aitor Garmendia** Itsasondoko txirrindulariak Alemaniako itzuliko etapa bat irabazi zuen. Sailkapen nagusian, 2. izan zen.

✓ Ataungo San Martin txirrindu proba **Dioni Galparsoro** ataundarrak irabazi zuen.

✓ **Mikel Gaztañaga** itsasondorak afizionatu mailako Espainiako txapelketa irabazi zuen.

✓ **Aitor Perez Arrieta** Zegamako txirrindulariak erlojupeko Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen.



✓ **Joseba Beloki** lazkaotarrak, Eibarko Euskal Bizikletako azkeneko etapa irabazi zuen.

Uztaila

hau ere bai

✓ **Josu Lopez Castañares** Beasaingo preso libre utzi zuen Frantziak. Espainiako Poliziaren esku utzi eta torturatuko ote zutenaren beldurrez, gose greba egin zuen beasaindarrak.

✓ Baltasar Garzon epaileak **Goierriko 4 taberna eta kultur elkarte** enbargatzeko agindua eman zuen: Beasaingo Arrano K.E., Lazkao Ansoategi Elkarte, Segurako Elorri K.E. eta Zaldibiako Osinberde K.E..

✓ Zegamako Tartalo elkarteak **herriko artzainei omenaldia** eskaini zien, Anjel Irigorasek argitaratu zuen artzaintzari buruzko aldizkaria aitzaki hartuta.

✓ **Lazkaibarko zubia** berritzeko lanak hasi ziren.

✓ **Joseba Beloki** lazkaotarrak bigarren bukatu zuen Frantziako Tourrean. 3. urtez jarraian, podiumean izan genuen Beloki. Aurten, maila bat gorago.

✓ **Emilio Sanchez** Espainiako txapelkun geratu zen fisikoki ez gai-tuak direnen artean jokaturako txirrindulari txapelketan.

✓ **Aratz Mendizabal** eta **Ibon Gurrutxaga** zaldibitar pilotariek Añorgako pilota txapelketa irabazi zuten.

5: Iñaki Garmendia eta Asier Mendizabal ordiziarrek, **Goierri Konpeti** ikusentzunezkoa aurkeztu zuten. Autozaletasunak elkartutako Goierriko lagun talde baten istorioa kontatzen dute bertan.

6: Beasaingo II. Triatloia jokatu zen Arriarango urtegiaren inguruan. Gizonezkoetan Garikoitz Etxebeste izan zen irabazle eta emakumezkoetan, Dolza Gonzalez.

7: Aizkorriko Lagunen Eguna ospatu zuten Zegaman. Egun horretako berrikuntzarik nagusia, Zegama-Aizkorri-Zegama mendi maratona izan zen. Juan Martin Tolosa amezketarra izan zen irabazlea.

7: Ordiziako Idiazabal Gaztaren kofradiak bere eguna ospatu zuen. Laguntasuna Errondaila eta Joxe Kruz Arregi artzaina izendatu zituzten ohorezko kofrade.

10: Gabiriako Josu Arratibel **Ian istripuan** hil zen Zumarragako Aceralia Redondo enpresan.

13: Zaldibiako **Txamarra-txeko festa** ospatu zen.

14: Iazko urtean ETAk Leaburun hil zuen Legorretako **Mikel Uribe** ertzaina gogoan izan zuten Legorretan.

14: Lierniko **erromeria** ospatu zuten ormaiztegiarrek.

14: Euskadiko **raid txapelketa** jokatu zen Ordizian, Lazkao mendiko Alarpe zalditegiak antolatutak.

16: Zeraingo **Oiar**te nekazalturismoko etxea ireki zen.

18: Zaldibian **V. Gazte Festak** hasi ziren.

18: **Santa Ana jaiak** hasi ziren Ordizian.

20: Ezkio-ltsasoko **Alegi auzoan** Madalena jaiak ospatu zituzten. Gabiriako Aztiri auzoak ere bai.

22: Frantziako Dordogneko gazteak **Zerainen** izan ziren, elkarren arteko harremanak sendotzeko helburuarekin.

25: Ordiziako **txirrindulari proba** Mikel Zarrabeitiak irabazi zuen.

27: Gabiriako **pilotalekua** berrinauguratu zen. Izen ofiziala ere jarri diote: Alkainburu pilotalekua.

31: Altzaniako Partzoneriko udalek antolatutako **Urbiako eguna** ospatu zen.



22: **Juan Inazio Begiristain**

Ataungo artzain eta bertsolaria, Aralarren, bere txabolaren inguruan hilik aurkitu zuten.

Unanue
Une Jantziak
Puerikultura
943 88 71 94
Nafarroa Etorbidea, 4 BEASAIN

ORKI
OPARIAK
Gabon zoriontsuak!
Nafarroa Etorbidea, 5
943 88 10 50 BEASAIN

Labores Otea
Gurutze-puntua, puntu erdia eta artiletan berezitasuna Gai hauen ikastaroak ere ematen dira
Bordatuak eta arropa konponketak
Oriamendi, 19 943 16 23 84 BEASAIN

Abuztua

hau ere bai

✓ **Iker Sukia** pisu jautilari ataundarrak kirola utzi beharra izan zuen lesioa bat zela eta.

✓ **Ekaitz Goikoetxeak** Basarri Saria irabazi zuen, Bihotzaren hegaldiak izeneko bertso sortarekin.

3: **Gazte eguna** ospatu zen Idiazabalen, Izalgo Gazte Asanbladak antolatuta.

3: **Ordiziako Arku Tiro** taldeak Espainiako Ligaren hirugarren jardunaldia antolatu zuen Gaintzan.

15: Itsasondon, **Andra-mari** eguneko festa ospatu zuten. Zerainen eta Gabirian herriko jaiak izan zituzten.

17: Legorretako **Patxi Eskitxabel** preso libre gelditu zen 22 urte kartzelan egon ondoren.

21: Olaberriako Aceralian izandako **lan istripuan** Luis Elorza idiazabalدارra hil zen.

23: **Iker Iraola** futbolari ordiziarrek Jerez de los Caballeros taldearekin urte beterako kontratua sinatu zuen.



29: San Joan Txiki eguna ospatu zuten Olaberrin.

26: **San Bartolome** jaiak ospatu zituzten Zegaman.

26: **Aitor Perez** zegamarra, LXIX San Bartolome Txirindu Froga irabazi zuen.

28: Joxe Barandiaran eta Joxemari Goikoetxearen arteko **desafioa** jokatu zen, orain 20 urte bezala. Trabesean sei bazkari zeuden.

hilean

euro

1



Goierritarra

etxean jasotzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Telefona:

Adina:

NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Goierritarraren harpidedun naiz eta hala izaten jarraitu nahi dut ☐

Ez naiz Goierritarraren harpide eta hemendik aurrera izan nahi dut ☐

Bidali txartel hau helbide honetara: Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia eta posta gastuak ordaintzeko urtean 12 euro (2.000 pezeta inguru) kobratuko dizkizugu zure kontu korrontetik

Aria ila

hau ere bai

- ✓ Zaldibiako **Bilore** enpresak 48 langile kaleratu zituen.
- ✓ **www.zerain.com**, Zeraingo produktuak interneten eskainiko dituen web orria aurkeztu zuten Donostian.
- ✓ **Idiazabalen** martxan jarri zen Musika eskola.
- ✓ Euskal Herriko aizkolari txapelketan laugarren izan zen **Iñaki Azurmendi** arriarandarra.
- ✓ **Joseba Beloki** lazkaotar txirrindularia 3. izan zen Espainiako Vueltan.
- ✓ Oñatiko Nazioarteko artzain txakur txapelketan, 3. izan zen Lazkaoko **Jose Mari Jauregi** artzaina.

1: **Beasainmendiko jaiak** ospatu zen Agortan. 81 urteko Joxe Ramon Etxeberria izan zen aurtengo omendua.

1: Legazpin izandako Artzain egunean, Zaldibiako **Gerardo Garmendia** artzain aipagarriaren saria eman zioten.

6: **Euskal Astea** hasi zen Ordizian.

6: Beasainen, **Igartza auzoko jaiak** hasi ziren.

6-7: EHNE sindikatuak eta Mendiko Artzantzan Lan taldeak antolatutako, **'Mendia eta abeltzaintza uztarrarian'** jardunaldiak izan ziren Ordizian.

7-8: **Lierniko festak** ospatu ziren.

8: Ezkio-Itsasoko **Kizkitzako Amaren** eguneko erromeria ospatu zen.

8: Zerainen, **I. raid** txapelketa jokatu zen.

11: Ordizian **iraileko azoka** berezia ospatu zen. Gazta txapelketa, Zeraingo M.Anel Inurategik irabazi zuen.

14: Kultur astea hasi zen **Zerainen**.

14-15: Itsasondoko **Urki auzoko jaiak** ospatu ziren.



11: **Zaldibian**, 1936ko gerran frankistek fusilatutako bi gazteren hezurduak aurkitu zituzten, Martin Ibaruren emandako datuen ondorioz.

15: Alzania Partzoneriko **ehiz postuen enkantea** egin zen. Apota 10 postuarengatik, 9.378 euro ordaindu ziren.

15: **Lazkao Txiki XI.** bertopaper lehiaketako sari banaketa egin zen Ordizian. Aritz Garin, Irati Goikoetxea eta Alaitz Sarasola izan ziren irabazleak.

16: **Ordiziako Udalak eta DYAK** hitzarmena sinatu zuten. Ondorioz, DYArek zerbitzua Goierri eskainiko da.

18: Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta Elkarlanean argitaleak antolatutako **V. Igartza literatur sorkuntzako beka**, Julen Gabiriak irabazi zuen.

20-22: **Itsasondoko jaiak** ospatu ziren.

21: **Legorretan**, autorik gabeko eguna ospatu zuten.

22: VIII. **Azoka ekologikoa** izan zen Zerainen.

23: **Hodei Galarraga** Zaldibiako ETAkidea Bilbon hil zen, gidatzen ari zen autoan zeraiman lehergailua lehertu ondoren.

29: **San Migel jaiak** ospatu zituzten Gaintzan, Altzagan, Lazkaon, Ormaiztegin eta Idiazabaldo Ursuaran auzoan.

29: **Rafael Berasategi** segurarra axilotu zuen Guardia Zibilak, ustez, ETArek Donostia komandoarekin zerikusia zuelakotan. Hiru egunera libre utzi zuten, inongo kargurik gabe.

29: **I. Euskal hegazti eguna** ospatu zuten Seguran.

29: Olaberrin **argazki rallya** jokatu zen. Irabazleak:

29: II. **Josetxo Imaz memoriala** jokatu zen Ordizia, Beasain eta Lazkaon osatutako 10 kilometroko ibilbidean. Dessaix-chin australiarra izan zen irabazle gizonetakoetan, eta emakumeetakoetan, Estibaliz Urrutia.



INPRIMATEGIA
URDANETA

KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA
DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ

Gabon zorientsuak!

Urdaneta, 26 ☎ 943 88 04 46 Faxa: 943 16 14 07 ORDIZIA

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredoiak
Mantak - Malndreak - Storeak
Toallak - Gortinak eta osagalak

J. M. Barandiaran Plaza

☎ 943 88 00 84

ORDIZIA

Urriak



26: Legorretako Udalak **Patxi Ezkiaga** herriko poeta seme kuttun izendatu zuen. Aldi berean, herriko Kultur etxeari, Ezkiagaren izena eman zioten.

4: **Santa Fe** jaiak hasi ziren Zaldibian.

6: Urretxu-Zumarragako Kilo-metroak 2002 jaian, lekukoa jaso zuen Lazkaoko **San Benito ikastolak**, 2003ko Gipuzkoako Ikastolen jaia antolatzeko.

12: Lazkaoko **Joxe Barandiaran** hil zen, basurde ehi-zen zebilela.

12-13: **V. Artisaua-**
dia izan zen Ordiziako Majori kiroldegian.

13: Kultur astea hasi zen **Ex-**
kio-Itsason.

13: **Igor Esnaola** legorretarra, Euskal Herriko trontza txapeldun geratu zen, Joxe Gabi-rondorekin batera.

15: **II. Esperientzia Es-**
kola martxan jarri zen.

18: **Segurako Udalak**, 'Baserri bizirik, dendak bizirik, herria bizirik' kanpaina aurkeztu zuen.

19: Ataungo **Aiora Ur-**
dangarinek, Euskal Herriko trikitilari txapelketa irabazi zuen, Maitane Aierzarekin batera.

20: Jatorriko euskal anima-lia espezien III. erakusketa izan zen **Ormaiztegin**.

hau ere bai

✓ Mexiko Hirirako metrorako 17 tren egiteko kontratua sinatu zuen Be-asaingo **CAF enpresak**.

✓ Ordiziako **Potrotaino** musika taldeak, 'La verdad comienza aki' diskoa kaleratu zuen.

✓ Legorretako **Ugaro Herri Eskolako** 15 ikasle Salamanca alde-an ibili ziren. 'Eskola Ibiltari' programaren barruan.

✓ Joxe Ramon Agirre '**Marron**' ataundarrak Himalayako Cho Oyu mendia- ren gailurra igo zuen. Jaitsiera, parapentez egin zuen.

✓ **Montxo Quina** lazkaotarra eta **Odilo Rivela** beasaindarra Europako Wu Shu txapelketa izan ziren.

✓ **Irriki Futbol Eskola** martxan jarri zen.

23: Legorretan **Kultur as-**
tea hasi zen.

26: **Udazken kultura-**
la hasi zen Beasainen.

26: Beasaingo **I. Bolun-**
tario eguna ospatu zen.

26: Lazkaon **IV. Gazte**
festa ospatu zuten.

26: Ordiziako **ileapain-**
tzaleen erakustaldia izan zen Garagartza plazan.

27: **Ardiki Eguna** ospa-
tu zen Zaldibian. Aralarko artzai-
nak ez ziren Aralarko gazta lehia-
ketara aurkeztu.


28: Itsasondoko Ximona
Ibargurenek **101 urte** bete zi-
tuen.



- Esku lanak
- Ikastaroak
- Opariak
- Enmarkazioak

© 943 65 55 77 © 943 88 40 56
Nafarroa Etorb., 10 J.M. Iturrioz, z/g
TOLOSA BEASAIN

ETXEBE TABERNA



*Gabon zoriotsuak eta
Urte Berri on!*

Zaldizurreta kalea
BEASAIN

ARRANO TABERNA

Pintxo eta ogitartekoak



Eguberrietan ere preso eta
iheslariak gogoan

Nagusia, 12
BEASAIN

Azaroa



7: Ordiziako Udalak omenaldia eskaini zion **Josune Bereziartu** eskalataileari, urriaren 29an 9a zailtasuneko 'Bain du Sang' bidea kateatu baitzuen.

hau ere bai

- ✓ 10 urte bete ziren **Sasieta** Mankomunitatea sortu zela.
- ✓ **Dioni Galparsoro** Ataungo txirrindulariak Euskaltel taldearekin fitxatu zuen.
- ✓ Josetxo Zufiaurrek **'Goierri atsegiña'** Goierriko enpresa esportatzaileei buruzko liburua kaleratu zuen.
- ✓ Ordiziako **Jakintza** Ikastolak kalitateko 'Q' ziurtagiria jaso zuen.

15: Ordizian jokaturako **Gi-puzkoako Odolki txapelketa** Ormaiztegiko Iñaki Kanposek irabazi zuen.

19: **Luis Ruano** 53 urteko igeltsari ordiziarra hil zen Andoianen lan istripuz, Luis Montecelo alegiarrarekin batera.

17: **Gabirian VI.** errezil sagar eta II. menbrillo lehiaketak izan ziren. Errezil sagarretan, Xabier Arratibel izan zen irabazlea. Menbrillo lehiaketan, Pili Etxeberria. Herritarren omenaldia, Gabriel Galdosek jaso zuen.

22: Ormaiztegin **San Andres jaiak** hasi ziren.

23: Beasain, Lazkao eta Ordiziako ikastolek antolatuta, **Urruña eta Ziburuko ikastolak** laguntzeko, Oskorri musika taldea izan zen Ordizian.

18: **Ordizia Txapeldun** gazta txapelketa jokatu zen. Lehengo saririk ez zen eman. Bigarrena, Maria Anjel Iñurrategi izan zen.

30: Orain urtebete ETak hildako **Ana Isabel Arostegi** eta **Javier Mijangos** ertzainei omenaldia eskaini zieten Beasaingo ertzainetxean.

2: Beasaingo **Odolki lehiaketa** Beasaingo Olano harategiko Isabel Imazek irabazi zuen.

6: **Andres Urdaneta** nabigatzaileari buruzko liburua aurkeztu zuen Jose Ramon de Miguelek Ordizian.

7: **'Antonio Bolas'** liburua aurkeztu zuen Joxantonio Ormazabal zegamarrak Zegaman.

9: **San Martin azoka** ospatu zen Zegaman. Aurreko eta ondorengo egunetan ere, hainbat ekitaldi izan zen.

11: **San Martin jaiak** ospatu ziren Araman eta Ataungo San Martin auzoan.

11: **Mendi astea** hasi zen Ormaiztegin.

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elozegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599
Urdaneta 52-behea. Ordizia.
Tel.: 943 087 486
635 703 671 / 635 702 570

- Jabekideen komunitatea osatzea
- Komunitateen kontabilitatea
- Akten idazketa
- Aurrekontuen eskaera
- Aholkularitza legala
- 24 orduko asistentzia
- e.a.



**ILEAPAINDEGI
MISTOA**

Zrionak eta Urte Berri on!

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arteak)
Tfnoa.: 943 16 11 05 BEASAIN

ZGT gabonei begira

Aurtengoan ere gainean ditugu Gabonak. Ekintza ugari daude antolaturik urte sasoi honetarako Zaldibian. Ez dugu aspertzeko denbora asko izango. Zaldibiako Gazte Taldeak proposamen ugari ekarri dizkigu aurtengoan. Hasteko, abenduaren 27an, arratsaldeko 18:00ak aldera Disko Txiki festa antolatu du, herriko gaztetxo guztiek parte har dezaten. Bertan, dantza egiteaz gain, jolasteko parada ere izango da. Ondoren, jaialdiak jarraituko du, baina oraingotan helduago direnentzako ezusteko ugari izango dira.

Gainera, abenduaren 31n, ZGTk San Silbestreko korrika txapelketa antolatuko du. Parte hartu nahi baduzue agertu egun horretan arratsaldeko 18:00ak aldera herriko plazara. Txapelketan bi talde egingo dira, bata gaztetxoekin eta bestea helduekin.

Honen guztiaren ostean parranda itzela izango dugu zain urtea agurtzeko. Jakina da, jende ugari duela urteari hasiera heritik kanpo emate-

ko ohitura. ZGTk Zaldibian geratzera animatzen zaituzte, ez zarete damutuko. Gainera, egun honetan bertan, hamabi kanpaiak jo ostean, 1:00etan hain justu, "Zain dago ama" abestuko da herrian zehar. Horretarako ekarri guztiok kandela bana herria pixka bat argitzeko.

Azken ostirala

Zaldibiako Herri Ekimenak deituriko kontzentrazio isila egingo da plazan. Jakingo duzue hilabeteko azken ostiraletan egiten dela ekimen hau, urte guztian zehar. Jakin, datorren urte berrian ere honek bere horretan jarraituko duela. Hau da, 2003an ere hilabeteko azken ostiraletan falta direnen aldeko hainbat ekintza egingo direla.

Ekintza ugari gabonetan

Gabonetarako musika eskolak badu zerbait pentsatua. Abenduaren 20an, 19:30ean hasiko da txistu taldea herrian zehar jotzen.



Abenduaren 24ean, guztiok abestera

Urtero bezala, preso eta iheslarien alde euro batzuk lortzeko asmoz kantari irtetzeko gonbitea luzatua dago. Goizean goiz abiatuta herri guztia pasatuko dute, abestiekin Eguberriak alaitu asmoz. Baina ahalik eta modu hobereanean abesteko, lehenik eta behin, entseatu egin beharko da. Hona hemen entsegu egunak:

Abenduak 20, ostirala 19:30ean

Abenduak 23, astelehena. Herri Ekimenak antolatutako kontzentrazioa amaitzerakoan hasiko da azken entsegua. Aipaturiko saio hauek guztiak Kultur Etxean egingo dira.

Gainera, abenduaren 28an, arratsaldeko 16:00etan, Dar-Dar taldeak aurkeztutako "Pinotxo" antzerkia izango da. Ikusi nahi baduzue, inguratu herriko antzokira.

Aritz Mendizabal nagusi ehiza txapelketan

Aldau baserriko Aritz Mendizabal atera zen irabazle iragan abenduaren 7an Errekabeltz inguruetan izandako

ehiza txapelketan. Mendizabalek hamar faisan bota zituen. Bigarren berriz, Patxi Gorostiza geratu zen, 9 pieza botata: bost eper eta lau faisan. Hirugarren Oier Urdangarin geratu zen, zazpi pieza botata. Guztira hamar ehiztari parte hartu zuten Gaztelu Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatutako txapelketan.

Eduarne Soraluze

Kultur Elejira

Hainbat ekitaldi izango dira Kultur Elejiraren barnean Zaldibian abenduan zehar. Hasteko, hilaren 20an, ostirala, Xabier Amuriza izango dugu antzokian; 22:15ean hasita Lazkao Txiki zenaren hainbat bertso eskainiko ditu.



Bestalde, Potxin eta Patxin pailazopak ere izango dira abenduaren 27an. Ikusi nahi badituzue gertura zaitezte 16:00etan, herriko antzokira.

Aiestaran Errekako festen balantzea

Adierazi bezala abenduaren 8an ospatu zen Santa Barbara festa. Hasteko, hilaren 4ean, elizkizuna izan zen elizan eta ospakizun nagusia hilaren 8an, igandean. Urtero bezala auzoko zaharrenari txandan txandan oroigarri bat eskaini zioten eta aurretan, Franciska Azurmendi Unanubietakoari tokatu zitzaion eta pozik hartu zuen. Ondoren kapila aurrean elizkizuna izan zen; apaiza, bertsolari, trikitixa eta dantzariekin. Ondoren Lazkao-Etxera joan ziren, eta han toka txapelketa jokatu zen. Juan Martin Luloaga izan zen irabazle, eta bigarren Simon Sarasola. Bazkari bikaina eman zuten. Ondorenen bertsolari, txiste eta trikitixa izan zen, nahiko algara egin zuen jendeak Mañu-korta eta Zeberioaren ateraldiekin. Bukatzeko Partxis eta mus txapelketa. Partxisean Josune Gorospe izan zen irabazle eta bigarren Eneritz Iruin. Musean, estu eta larri aritu ondoren bertsolariak nagusi, bigarren Jose Lizaso eta Jose Larrarte. Ia bederatzia jo zuten festa bukatzeko.

x i o r

ileapaindegia

non zure eguna berezi egin dezakegun

Inaugurazio promozio bezela


5 alditako solarium bonoa

18 €


koloreztatua, motza, lisoa,

luzea, rizatua, bildua...

zure aukera.



nafarroa et.53 20200 beasain tf.943 88 23 40



HARRIA GRESAK

BAINUGINTZAKO PROFESIONALAK

jantzi
galaz
zure
bainugelak



HARRIA GRESAK

**Diseinuan beti
aintzindari**

*Bisita gaitzazu eta ezagutu
bainugintzako azken moda*

Tel.: 943 88 54 66 Faxa: 943 16 19 75

Zelaeta, 1 BEASAIN

Zuri egokitutako serigrafi lanak egingo

dizkizugu - Kamixeta serigrafiatuak - pegatinak

enpresa jantziak - txiskeroak - enpresa opariak

boligrafoak - metakrilatoak - poltsak (tirada

laburretan) eta imajina dezakezun ia edozein

gauzaren gainean inprimatu dezakegu

seriadk****[®]
serigrafia



e-mail: seriadc@publiadc.com

Zelata Berri plaza, 3 c.p. 20200 Beasain (Gipuzkoa) tel.: 943 80 40 27 Fax: 943 80 40 28



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

Jesus Mari Deba herriko odolki lehiaketako irabazle

Orain egun gutxi Gipuzkoako odolkgile onenaren saria Iñaki Kanpos herritarrek lortu izanaren berri pozgarria eman genuen. Orain berriz, Jesus Mari Deba, herriko jaietan, XVI. Ormaiztegiko odolki lehiaketan lortu berria duen sari nagusiaren berria ematera goaz. Jesus Mari herriko odolki lehiaketan bigarren aldiz jarraian lortu du lehenengo saria.

Ormaiztegiko XVI. Odolki lehiaketa

Aurtengo odolki lehiaketan guztira hemezortzi harakinek parte hartu zuten, partaideak gure herrira oso bestelako lekueetatik etorri ziren besteak beste Beasain, Lazkao, Orrio, Ordizia, Idiazabal, Hernani, Arrasate, Legazpi, Lasarte, Zumarraga, Markina-Xemein eta Tolosatik. Herriko hiru harakinak ere partaide izan ziren.

Aurtengo XVI. Odolki lehiaketako irabazlea erabaki zuen epaimahaia 9 kidez osatua egon zen; aurtengoan Martin Berasategiren partaidetza baieztatua bazegoen ere azken unean izan zuen osasun arazo batengatik ez zuen etortzerik izan. Aurtengo epaimahaia Juan Jose Lapitz, Busca Agirre, Pello Garcia Amiano, Jose Luis Mendizabal, Sole Iparragirre, Koldo Lasa, Luis Mokoroa, Pedro Ruiz eta Patxi Mendizabalek osatu zuten.

Sukaldaritza lehiaketa

Ormaiztegiko odolkia osagaitzat duten plateren III. sukaldaritza lehiaketa ere ospatu zen, eta bertan bost herritarrek parte hartu zuten. Aurkezturiko platerak odolki eta onttoz beteriko krepeak kalabazin kremarekin, odolki kutixia, odolki pastela, eta odolki pudinga gaztarekin izan ziren.

Aurtengo lehiaketako irabazlea Luis Juan Unanue izan zen, berak aurkezturiko platerak odolki eta onttoz beteriko krepeak kalabazin kremarekin izan zen. Bigarren saria eta aurkezpen onenaren saria Mari Lolo Uribe-Etxebarriak aurkezturiko odolki kutixia platerak eraman zituen.

Odolki osagaien V. azoka eta lehiaketa

Bestetik V. Odolki osagaien azoka eta lehiaketa ere ospatu zen. Barazkien lehiaketan Kasilda Iurrita, Rafaela Peñagarikano, Maria Etxezarreta eta Benito Deba izan ziren partaide, eta txerrien sarietan berriz, Mari Karmen Barrenetxea. Epaimahai lanetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza Aldun Jon-Mikel Murua herritarra, Goimen Elkarteko ordezkaria eta Eusko Oloa elkarteko kideak aritu ziren.

Txerrietan aipaturiko Mari Karmenek eraman zituen lehen eta bigarren sariak. Postu



Jesus Mari odolki lehiaketako irabazlea

onenaren saria Rafaelarentzat izan zen, eta bigarrena berriz, Maria Etxezarretarentzat. Porru onenaren saria Kasildarentzat izan zen, eta bigarren saria berriz Rafaelarentzat; tipolarik onenaren saria Kasildarentzat izan zen, eta bigarren saria berriz Mariarentzat. Perejil eta oregano onenen saria Maria Etxezarretarentzat lortu zuen. Jaso bezate baserritar hauek ere gure zorionik beroena lehiaketan parte hartzeko, produktu bikainak ekoiztu eta ekartzen eginiko ahalegin bereziarengatik.

Aurtengoan eguraldiak baxterre lagundu ez arren, azpiegitura aldetik aurreikuspen ona eginenez, odolki lehiaketa eguna giro onez burutu zela esan dezakegu. Antolakuntza lanetan Ormaiztegiko Udala, Baso-Txulo eta Barduliarrak elkarrekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen saila aritu ziren; aurtengo babeslea Mujika Jatetxe-landetxea izan da, eta laguntzaileak berriz Sagaspe okindegia, Elosegi ardotea, Premank, J.J. Irnasa Euro, Euskorot eta Lazti garraioak izan dira. Aipaturikoez gain aurtengo odolki lehiaketa antolatzen lagundu duten norbanako guztiek ere jaso bezate lerro hauetatik eskerrik beroena.

Aitziber Murua

Gabon ospakizunak

Urtero ohi bezala aurtenean ere gabon ospakizunak direla eta herrian hainbat ekintza osatuko dira besteak beste kontzertu eta errege besperako kabalgata.

Abenduaren 20an arratsaldean kultur etxeko aretoan Txindaka musika eskolako ikasleek gabon kontzertua izango da.

Bestetik, urtero bezala, **gabon gauean**, egunean zehar herriko kale eta etxeak alaituz ibiliko diren taldeak eta herritar guztiok batekin, iluntzeko 20:00etatik aurrera, eliz atarian elkarri eguberri jai zoriontsuak opatzeko aukera izango dugu denak batera abestiak eskeiniz.

Errege bezperan, berriz, egunean zehar erregeen etorrera ospatuko dugu. Eguerdian ohizko errege eraldoarekin, arratsaldean berriz erregeen etorrerarekin.

Lerro hauetatik herritar guztiei eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu eta 2003. urte paketsu eta zoriontsu bat desio dizkizuegu.



Eguberri bete beteak

Abenduaren 10etik 15era euskal liburu eta diskoen XIV. azoka egin zen. Azoka bera 13tik 15era, eta aste guztian zehar hainbat libururen aurkezpen, hitzaldi eta bideo-emanaldiak egin ziren azokan bertan eta Kultur etxean.

Abenduaren 13an hasi eta urtarrilaren 12ra arte Eguberri jaien inguruko egitarau bete bete antolatu da herrian. Aste honetatik aurrera antolatu den egitaraua hau da zehazki:

Abenduak 16, astelehena:
'Etorkinen gaur egungo egoera' hitzaldia emango du-te SOS Arrazakeri taldeko bi partaideek, Kultur etxean 19:00etan.

Abenduak 17, asteartea:
Mertxe Morenak 'Lazkaoko gune historikoa' hitzaldia emango du, Kultur etxean 19:30ean.

Abenduak 18, asteazkena:
Karmelo Urdangarinek 'Globalizazioa' gaiari buruzko hitzaldia emango du, Kultur etxean 19:00etan.

Abenduak 19, osteguna:

Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazoak, Joxemiel Barandiaran kiroldegian, 17:00etan.

Abenduak 20, ostirala:

Astoari eskainitako kontzertua. San Prudentzio ermitan 19:00etan. Parte hartzaileak: Donostiako Udaleko txistulari taldea, Jose Ignazio Ansorena zuzendari dutela. Lazkaoko San Benito korua, Debora Herrero zuzendari dutela. Erreterria Musikaleko Dantzari taldea, Jon Maia zuzendari dutela.

Abenduak 22, igandea:

Easo kapera gregoriantak eta Lazkaoko abesbatzak gregoriano abestutako meza eta gregoriano kontzertua. Beneditarren elizan, goizeko 11etan.

Abenduak 27, ostirala:

Umirezko bakarriketak, Alex Rabanalekin, Kultur etxean, 19:30ean.



Urtarrilak 5, igandea:

Errege kabalgata. Irteera San Prudentzio auzotik 16:30ean, eta amaiera Lazkao Txiki zelaian.

Urtarrilak 11, larunbata:

Asto proba. Plazan 19:00etan.

Urtarrilak 12, igandea.

Astotxo eguna:

Asto diana, 10:00etan.

Meza nagusia Zistertarren konbentuan, Lazkaoko abesbatzaren parte hartzearekin. 11:00etan.

Gipuzkoako IV. asto erakusketa eta lehiaketa. Herriko plazan, 12:00etan. Gipuzkoako asto autoktono hoberena eta asto ederrena aukeratuko dira.

Egiptoko ihesaren kale antzespina. Herriko 150 gaztek 1652an sortu zen festari bizia emango diote, Lazkao Txiki zelai inguruan 13:00etan.

Haurrentzat jolasak

Abenduaren 26, 27, 30, 31 eta urtarrilaren 2 eta 3an haurrentzako jolasak izango dira plazan 11:00etatik 13:00etara, aurretik izena eman dutenentzat

Erakusketak

Abenduaren 22ra arte: 'Lazkaotarrak hirugarren munduan bisitari', argazki erakusketa, Kultur etxeko erakuskea gelan.

Urtarrilaren 2tik 12ra: 'XVI.-XIX. mendeetako Euskal Herriko jantzi erakusketa, Kultur etxeko erakusketa gelan.

iBAti-ONDO AROZTEGIA

DOAN!
DVD erreproduzitzailea

Sofak, altzari mazizoak haritzekoak, gerizekoak, gaztainondoak

multisac
Familia guztientzat oparia
Multisac kolotoia erosita eraman ezazu
doan 200 euroko balioa duen
DVD erreproduzitzailea

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefona: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

LAZKAO GARAJEA

RENAULT AGENTZIA

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

EGUZKI
INPRIMATEGIA

Nafarroa Etorbidea, 9
☎ 943 88 94 82
BEASAIN

ZUZENKI
AHOLKULARITZA

Abokatuak
Enpresen asesoria eta gestioa

e txekin
www.txekin.net

Etxebizitzen salmenta: Legorreta Beasain Orendain

Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet.net Elosgi, 16 LAZKAO



KZ gunea martxan

Eusko Jaurlaritzak bultzaturik herrian KZ gunea bat jarzeko asmoa dago. Interneten ibiltzen ikasteko aukera paregabea da. Hil honen 17an hasi ziren ikastaroak, eta aurrera begira ordenagailuetan ibili ahal izateko beharrezkoa izango da ikastaro hauek egitea. Abenduaren hasiko diren ikastaroak 50 urtetik gorako pertsona guztiei zuzenduta daude. Izenak eta ordutegiak zehazteko Maite Zabaletarekin harremanetan jarri beharra dago.

Ikastaro hauek guztiak Kultur Etxean egingo dira, bertan instalatuko baitira ordenagailuak. Bide batez, aipatu, urtariletik aurrera beste adin talde batzuetako ikastaroak ere izango direla.

Kultur Etxea aipatzen hasita jakinarazi liburutegi zerbitzua ere martxan dela, liburuak kontsultatu nahiz intereseko liburuak etxera eramateko. Animatu besterik ez bai ekintza batean parte hartzera, baita liburutegian sartu irten bat egitera, gustuko libururen bat aukeratuz.

Tere Arruabarrenaren erakusketa

Dagoeneko ohituta ere bagauzka Tere Arruabarrenak herriko margolariak, batean eta bestean erakusketak egin dituen erakusketetara, asko baitira eta arrakasta handikoak gainera. Abenduaren 7tik 20ra bitartean Donostiako Koltxonerian egingo du erakustaldia. Ez da aukera txarra Donostialdera joan eta alde zaharreko txoko paregabe honetan sartu irten bat egiteko.

Santa Luzi eguna

Abenduaren 13an ospatzen dute beraien eguna jostunek eta herriko etxekoandreak aitzakia hori hartuta, herriko Ostatuan lagunarteko afaria egin ohi dute. Horixe egin dute aurten ere, abenduaren 14an elkartu baitziren eguna ospatzera.

Inaki Ugalde



Gabonetako kultur ekintzak

Abenduak 21, larunbata (Santo Tomas Eguna):

11:00etan: Santo Tomas Feria zabalduko da.

11:45ean: Ordiziako Musika Eskolako Txistulari eta Bandaren irteera.

12:30ean: Ikastetxeko haurren gabon kanta emanaldia Ordiziako bandaz laguduta.

Ondoren: Txistorra banaketa eta urdaiazpikoaren zozketa.

20:00etan: Gabonetako Kontzertua Ordiziako Santa Ana Abesbatzaren eskutik Salbador Deunaren Parrokian.

Abenduak 23, astelehena:

18:00etan: Pello Añorga ipuin kontalaria. 4tik 11 urte bitarteko haurrentzako emanaldia eskainiko du Udal Liburutegian.

Abenduak 24, asteartea:

10:30ean: Ugarrak Ikastetxeko haurrak Gabonetako Abestiak abestuko dituzte kalezkale Olentzerok lagunduta.

16:00etan: Olentzerok opariak banatuko dizkie Legorretako haurrei Herri Zineman.

Abenduak 26, osteguna:

18:00etan: Sebastopoleko Titiriteroek 'Gaur Egungo Ipuinak' antzezlan eskainiko dute Herri Zineman.

Abenduak 27, ostirala:

19:30ean: Dar Dar Produktzioak "Pinotxo" antzezlan eskainiko du Herri Zineman.

Abenduak 30, astelehena:

18:00etan: Enkarni Genua eta Manolo Gomezek "Itsasminenez" txotxongilo emanaldia eskainiko dute Herri Zineman.

Abenduak 31, asteartea:

11:30etan: Bilkoin K.K.E.-k antolatutako 'San Silbestre' Krossa hasiko da.

00:30etik aurrera: Urteberriko Dantzaldia Bilkoin Elkartearen.

EUSKAL ABIZENAK EUSKAL GRAFIAZ



Zure abizenak euskaraz idazten dituzula,
baina karneteen erdal grafiaz agertzen direla?

Arazo hau behin betirako konpontzeko aukera duzu orain.
Hemendik aurrera agiri guztietan zure abizenak legalki euskal grafiaz
idatzi ahal izango dituzu.

**HURBIL ZAITEZ, ABENDUAK 16tik URTARRILAREN 17ra
HONAKO LEKU HONETARA ETA GUK EGINGO
DIZKIZUGU BEHAR DIREN TRAMITE GUZTIAK.**

ORDIZIAN

HITZARO EUSKARA ELKARTEAN

Zumalakarregi, 1

Arratsaldeko 4etatik 7etara



Ordiziako Udala



INFORMAZIO GEHIAGO 16 23 66 TELEFONOAN.

Urte Zahar, Urte Berri

Erakusleho bereziki apainduak, argiteria, hotza, kapoiak... dena prest Olentzero-ri ongi etorria egiteko. Egu-berriak edota Gabonak, nahi bezala bertan ditugu eta honekin batera opor hitza denon ahotan, gazte nahiz heldu. Aisialdi hori nolabait bete egin behar eta egitarau ezin beteagoa eskainiko du berriro ere Udalak. Guztiek ere aipamentxo bat behintzat merezi dute.

Korrika bonoak salgai

Beste behin euskararen aldeko Korrika antolatu beharrean da AEK. Bi urtez behin egiten den ekintza da Korrika eta 2003ko apirilaren 4tik 13ra izango da hamairugarren hau. Ordiziatik apirilaren 6an, igandea, ilunabar aldera pasako da. Euskal Herrian euskalduntze eta alfabetatzean zer egina badagoelako eta horretarako behar den tokitik behar adina laguntza iristen ez denez diru eske dira berriro ere AEK-koak. Oraingoan bono laguntzak jarri dituzte edonorentzat eskuragai herriko hainbat taberna eta dendetan. 10 euroren truk lortu ditzakezu bonook eta bueltan Euskal Herriko zenbait lekutan beherapenez gozatzeko aukerarekin txarteltxo.

Lursailak salgai

Hilerrian panteoiak eraiki nahi dituzten horiei guztiei aukeran jarri dizkie Udalak 15 lursail, hirurentzat bata eta seientzat gainontzeko hamalauak. Bete beharreko baldintzak zeintzuk diren jakin nahi izanez gero edota interesaturik bazaude udaletxeko bule-

goetara jo besterik ez duzu abenduaren 19a baino lehen.

Eraikinak behera

Etxe zaharrak bota eta berriak eraikitze lanetan gabiltza aspaldian. Oraingoan txanda Asto Kalean hain ezaguna zen Siglo XX taberna zegoeneko horri eta Urdaneta kalean Azurmendi gasolindegia zegoenekoari iritsi zaie.

Sari ugari

Gipuzkoa mailan antolatutako idazmena lehiaketan sari piloa eskuratu dituzte herriko haurrek eta baita heldu batzuek ere. Tamayo paperdendak bultzatutakoa da lumaz egindako idamena sariketa eta besteak beste hauek izan dira saria jaso duten herritarrik: Olatz Rodriguez, Nora Otegi, Ursula Luna, Ainhoa Altuna, Ana Jesus Hidalgo eta Jon Biguri. Era berean, ikastetxeei zegokion saria Urdaneta-Oiangurenentzat izan da.

Donostiako maratonia

Hona hemen Txindoki Atletismo Taldeko lasterkariek hain proba garrantzitsuan lortutako emaitzak. Jon Aranburuk bi ordu eta 34 minutu, Juan Carlos Valdiviesok 2 or. 36m, Anartz Etxeberriak 2or. 40m, Anjel Perezek 2or. 48m, Juanito Rubiok 2or. 56m eta Igor Altolagirrek 3or. 03m. Amaia Insaustik 2or. 44m behar izan zituen eta lehen gipuzkoarra izan zen. Bestalde, aipatu Eñaut Gereñuk jubenil mailako Espainiako txapelketan parte hartzeko gutxieneko marka lortu duela 200 metro-tan.

Gabonetako ekintzak

● **Tomas Deuna:** larunbatarekin etorriko zaigu txistorra dastatzeko aukera. Azaroan bertan egin zen herrian Gipuzkoako txistorra lehiaketa eta bertan Ordiziako harakinek, lehen postuak lortu ez arren, maila ona erakutsi zuten. Arratsaldean Irriki Elkartek haur, gazte eta ez hain gazteentzat ekintzak antolatu ditu. Ez dira faltako umeentzako jolasak, gaztainak, taloak, bertsolariak eta trikitilariak. Guztiak ere Enparantza Nagusian.

● **Olentzero:** Eguberri bezperan jasoko dugu ikazkinaren bisita. Ziur ikatza baina zerbait gehiago ekarriko diela Enparantza Nagusira hurbilduko diren haurrei.

● **Peria:** urtea amaitzarekin batera aparteko peria egingo da. Asteazkenean egin beharrean bezperan egingo da oraingoan. Ohi bezala ez dira faltako indioilar, kapoi, antzar, erre-zil-sagar, fruitu lehor, bigantxa, orein, basurdekumak eta artisautza postu bereziak. Lehiaketak izango dira.



● **Bertso jaialdia:** Amets Arzallus eta Sustrai Kolina bertsolari gazteak entzuteko aukera izango da abenduaren 28an, inuxente egunean, Barrena Kultur Etxeko Batzar Aretoan iluntzeko 10:30etik aurrera. Unai Elizasu izango dute gidari berezia izango den saio honetan.

● **Silbestre Deuna:** lasterketa herrikoietan herrikoiena izango dugu ziurrenik berau. Urteik urtera jende gehiago animatzen ari da, gainera, urteari amaiera lasterka eginez ematen. Herri-guneko lanak direla eta ibilbideak aldaketak izango ditu aurreten ere.

● **Pantxoa eta Peio:** Bustuntza auzoko Argi Berri Elkartek 25 urte beteko dituela eta ekintza berezia antolatu dute urtarillaren 4rako. Guztion gozamenerako aspaldian ixilik egon eta berriro disko berria atera duten "Pantxoa eta Peio" bikote lapurtarra entzuteko aukera izango da. Euren kantu-bizitzako abestirik esanguratsuenak hartu eta bildu dituzte azken diskoan. Eta hauek denak eta gehiago entzungo ditugu aipatu larunbatean gaueko 10:30etik aurrera Majori Kirolegian.

● **Erregeen kabalgata:** Olentzerorekin nahikoa ez eta Ekialdetik datozen hiru Erregeei harrera egingo zaie urtarillaren 5ean. Ohi bezala Bustuntza auzoan abiatu eta herriari buelta eman ondoren Enparantza Nagusian izango du amaia.

● **Gainontzekoak:** aurrekoek gain ez dira faltako ipuin kontalariak, haurrentzako puzgarriak, abesbatzen saioak, kantu eskea, gaztetxoentzako disko festak Beti Alai pilotalekuan, antzerkia, pilota partidak eta Barrenako erakusketak. Tartean AEK-k ikastetxeekin batera antolatutako postal eta idazlan lehiaketan sarituak izan diren postalak.

Aitor Calvillo



Jubilatu Elkarteak

Abenduak 18an jokoak izango dituzte Jubilatuen Elkarteak eta 19an berriz hirugarren adinekoei buruzko hitzaldia. Ostiralean, hilak 20, Santo Tomas Eguna ospatuko dute, arratsaldeko 17:00etan txistor jatea izango delarik. Aldi berean, astean zehar izango diren jokoen irabazleei sariak banatuko dizkiete. Honez gain, Gabon Saski eder bat zozketatuko da bazkideen artean eta jubilatutako helduenei aginaldoak emango dizkiete.

Gabon Gau Eguna

Abenduak 24an, goizeko 9:00etan, Aitxuri Herri Esko-

lako ikasleak eskean aterako dira gure herriko kaleetan zehar, 10:00etan eskolaurreko haurren laguntza izango dutelarik. Arratsaldean berriz, baserrietarako ibilbidea hartuko dute, herri inguruko txokoak alaituz. Iluntzean, Olentzeroekin batera herrigunean ibiliko dira, gauean opari asko utziko dizkien esperantzarekin.

Urte Zahar Gava

Urte berriari Zegaman hasiera eman diezaiozuen gonbidatzen zaituztegu, parranda egiteko herri paregabea da hau eta!.



XII. Eguberri jaialdia

Abenduaren 29an, iluntzeko 19:00etan, Orkatz Abesbatza eta Orkatz Txiki Abesbatzak emanaldi atsegina eskainiko digute Parrokian, beraien abestiekin gure belarriak goxatuz.

Eduarne Albizu



Gabonak

Aurten ere heldu dira Gabonak beren jai, opor eta ospakizunekin. Gure artean, jai hauetako egunik garrantzitsuenak Gabon eguna izan ohi da, eta egun honetako ohiturarik politenetako bat gabon eskea da, ohitura honekin ja-

rraituz aurten ere herriko haur, gazte eta helduez osaturiko taldeak etxetik etxera ibiliko dira.

Iluntzeko 7ak aldera, Olentzero iritsiko da herriko plazara, bere gurdia opariz beteta

duela, haurren gozamenetarako, herritarrek kantuz egingo diote harrera.

KZ gunea

KZ guneko ikastaroak arrakasta handia izan dute, izan ere hasiera batean hiru ikastaro antolatu baldin baziren ere Azaroan eta Abenduan beste

bi antolatu dira, hasieran aurreikusita zegoen jende kopurua dezentz gainditu zelako.

Ostatua oporretan

Ostatu jatetxea oporragatik itxita egongo da Abenduaren 24tik Urtarrilaren 16ra bitartek.

Mari Flor Mendizabal

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



× LEIHOAK, ATEAK eta abar

× ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

KAFA TXIGORTZEN DUGU



KAFA eta TE denda

Santa Maria kalea 19
Tel: 943 88 12 80 ORDIZIA

MGAR

Argiztapenak



Euskal Pilota, 4 eta 5

eta faxa: 943 88 86 88

eta mugikorrak: 619 46 22 65

eta 619 46 22 68

ORDIZIA

URDANETA KHAF harategia

Kalitate hobeak!

Prezio berean!



*Gabon zoriontsuak
eta Urte Berri on!*

Urdaneta 25
943 16 15 14
ORDIZIA

Kalitateko
Haragi
Fidagarria



FOTOPRIX®
LO MEJOR EN FOTO




Foto IBILTARIA

Elkano, 8 (Asto Kale)
☎/faxa: 943 16 22 64
ORDIZIA



*Kanaloia
Bajanteak
Fatxadak
Pintura
Teilatuak
Tximiniak*

...

Tfnoa.: 605 712 018
Ezkurdiategi Etxea ATAUN

FOTO ORDIZIA ARGAZKI-DENDA

DOMINGO UNANUE,1

GELTOKI PAREAN)

BIDEOKAMERA DIGITALAK ARGAZKI KAMERA DIGITALAK

**ERREBELATUA
ORDUBETEAN**

20 x 30 neurriraino

beti Kodak paper eta kimikoekin

**Negatibo eta diapositibak
CD-an**

Zure errebelatuarekin eskatu CDa

Gabon egitaraua

● **Olentzero eskolara:** Abenduaren 20an arratsaldean etorriko da Olentzero beheko eskolara, intxaurrak banatu, haurren galderak erantzun eta gutunak jasotzera. Bestalde, gabon kantu eta dantza entsaioetan ari dira abenduaren 22 eta 24ko ekitaldietarako. Europistasek nahiz Carrefour-ek antolatutako Olentzero lehiaketarako panpin bana egin dituzte.

● **Anda erakusketa eta kantu emanaldia:** Abenduaren 22ko meza nagusiaren ondoren, plazan. Neska-mutikoei taldeka parte hartuko dute. Oroigarriak partehartzaileen-tzat.

● **Eskolaren Olentzero marrazkiak,** ikusgai plazan abenduaren 24 goizean.

● **Kantu eskeak:** Umetxeko haur eta gurasoak goizeko 11etan geratu dira plazan, herrian zehar kantu eskean ari zirela. Preso eta errefuxiatuen alde, goizean aterata, baserri baserri.

● **Olentzeroren etorrera Lastala aldetik.** (Elorri Kultur Elkarteak udalaren laguntzaz antolatutak). Lastala baserrian arratsaldeko 6etan piztuko den suak, txalapartak eta adarrak egingo diote harrera Olentzerori. Bertatik, antortza eramaileak lagun dituela Madalena-ra jaitsiko da oinez. Mendotzeko traktoreak eramango duen karrozara igota, txistulari, artzain eta antortza eramaile gehiagorekin herrirantz abiatuko da errebaletik. 18:30ean Jermanenen herriko koruak egingo dio harrera. Herriko kaleak zeharkatuta, plazan egingo den ekitaldiarekin (txalaparta, dantza, musika, kantuak...) amaituko du ibilbidea. Ondoren, Olentzero hurrekin arituko da solasean plazan. Ibilbidean ospitaleko bisita egin eta opariak eramango dizkie eta plazako ekitaldiaren amaieran komentuko ere bai. Amaitzeko, plazan erretako gaztainak, intxaurrak, gaztaia eta ardoa bertaratzen direnzentzat.



Artzainak Olentzeroren karrozaren aurretik.

Antolatzaileek baserriar jantzitza ateratzeko gonbitea egingo diete herritarrei.

● **Txistularien alboradak:** Gabon eta urte berri egunetan etxez etxe arituko dira Kriseilu taldekoak.

● **Futbolekoen III. makro festa:** Abenduaren 28an, gabon giroaz baliatuz eta futbolerako diru piskat atera asmoz: 16:00etan futbol partidua jokalariek segurarren eta bertan jokatzeko dutenen artean. 18:30ean herri poteoa trikitilariarekin. Buruhaundi eta erraldoiak. 20:00etan, gaztaina erre eta ardo partiketa plazan. Herriko koruaren kantu emanaldia. Baratzeko pelotalekuan txiste kontalariarekin

(txartelak tabernetan) Ondoren, Imuntzo eta Beloki eguna argitu arte. Hiru taberna izango dira frontoian. Bero-gailua jarriko da eta inortxok ere ez duela hotzik pasako adierazi dute antolatzaileek.

● **Aizkorri mendi irteera:** Urte zahar egunez, mendi elkarteek antolatuta, goizeko 8,30etan plazan elkartuta, Aizkorri mendi irteera.

● **Urte zaharri agurra:** Arratsaldeko 5etan, buruhaundi eta erraldoiak. 18:00etatik aurrera, herriko talogileak plazan, Elorri Kultur Elkarteak antolatuta.

● **Errege Magoen kabalgata:** Antolatzaileak aste honetan ziren lehen bilera egitekoak.



Erosleko herriko produktuen apalategia.

Herriko produktuak sagai

'Baserria bizirik, dendak bizirik, herria bizirik' kanpainaren barne, Udalak, baserriar eta dendarien laguntzarekin, herrian sortzen diren produktuak saltzeko estanteri bereziak jarri ditu. Bertan, produktuak bereiziko dituen logoa eta beraien jatorria, zein prezioa adieraziko dira. Momentuz, Beheko panaderian, fruitadendan, Eroslen eta Ikortanean dago herri produktueak (barazkiak, fruituak, indibabak, gaztaiak, eztiak, mernbriloak...) erosteko aukera.

Joseba Telleria

Erreka garbiketa

Udalak burutzear daukan uraren erabilpenaren inguruko zirkuito kulturala dela eta, Zubiberritik presa haundiraino doan erreka barru guztia garbituko da. Lana, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz egingo du, horretan espezializatua den 'Eulen' enpresak. Ondoren, erreka ertzak gartzitzei ekingo zaio. Garbiketa lanak, pasa den astean ziren hastekoak.

Labur-labur

● **Ximon eta Sebastian Garaialde** anaiek irabazi zuten Zapoiale elkarteak mus txapelketa azaroaren 29an.

● **II. San Ixidro pala txapelketa.** Herriko nahiz frontoian jokatzeko duten 16 urtetik gorako bikoteek tabernetan dauden orrietan eman behar dute izena errege egunerako. Lehen edizioan 25 bikote parte hartu zuten.

● **Mendi federatu txartela** berritzeko mendi elkarteak norbaitengana jo behar da.

● **Eugenio Elorzaren ezti berrirako sarituri.** Azaroaren 30ean Eibarko San Andres azokan irabazi zuen aurtengo 4. saria.

2003ko aurrekontua onartuta

Udalak azaroko plenoan onartu zuen datorren urterako aurrekontua. Eusko Alkartasunaren eta Eusko Alderdi Jeltzalearen aldeko botoa izan zuten aurrekontuek. Batasuna abstenitu egin zen Ezker Abertzalearen inguruko Udalbiltzarentzat eskatutako laguntza ez zelako kontuan hartu.

2003. urteko aurrekontutik 328.680 euro (54 milioi pasatxo) proiektu berriak gauzatzeko erabiliko da. 90.000 euro, Goiburutik Ursuaran bitartean oinezkoentzat eta mendiko ibilgailuentzat pista berria egiteko izango da. Baserrien inguruko azpiegitura hobetzen, 75.000 euro gastatuko ditu udalak. Agerreko ermita berritu, Limas parean autobusaren zain egoteko markesina egokitzea, edota Euskarari eskainitako diru kopurua ere badaude aurrekontu horietan.

Festak antolatzen

2003.ko otsailaren 1etik 4ra izango dira Sanblasetako ekitaldi nagusiak. Aurreko aste-buruan (urtarrilak 24-26) kro-sa egingo da eta larunbat gauean musika egongo da.

Festak antolatzeko batzordeak ostiralero, arratsaldeko 7.00etan egiten ditu bilerak Kultur Etxean. Lehendabiziko bileretan, gauean plazan aritzen den musika taldeen inguruko hausnarketa izan dute mahai gainean. Azkeneko urteetan plazan jende gutxi biltzen dela ikusita, horri aurre egiteko neurriak aztertzen ari da Festa Batzordea.

Sanblasak antolatzeko bileretan herritar guztiek parte hartu dezakete.

KZ gunea

KZ guneak ondoko eskaintza prestatu du abendurako:

Nabigatzen ikasi (22 ordu) ikastaroa, abenduaren 23

Gabonetarako ekitaldiak

Datozen egunetarako gabonekin zerikusia dutenak eta beste-lako ekitaldiak daude antolatuta:

Abenduak 21, ostirala, 20:00etan: Santo Tomas eguna ospatzeko txistorra jatea Jubilatuen Elkartean,

Abenduak 24, asteartea: goizean Herri Eskolako haurrak kantuan ibiliko dira herriko kaleetan barrena. Arratsaldean, herriko abesbatzak eta txistulari taldeak Gabonetako kontzertua eskainiko dute plazan.

Abenduak 30, astelehena, 17.00etan: Bilin Bolon zirkoaren emanaldia Igarondo pilotalekuan.

Urtarrilak 1, asteazkena: Iluntzean, urteroko ohiturari eutsiz, Udalak ardoa banatuko du arkupetan.

Jubilatuken Elkartekoek **jaiotza** jarriko dute Pilarreneko pilotalekuan.

Xabier Urteaga

tik urtarrilaren 9ra emango da goizetan 9:00etatik 11:00etara eta arratsaldetan 16:00etatik 18:00etara.

Nagusientzako ikastaroa (10 ordu) abenduaren 16tik 20ra eta 23tik 30era emango dute.

Abenduan, gainera, **Bidali postala** (abenduak 17) eta **Kutxanet** (abenduak 18) mintegiak egiteko aukera izango da, arratsaldetan 16:00etatik 18:00etara.

Gabonetan, jai egunetan izan ezik, KZ guneak ohiko ordutegia izango du.

Kirol Elkartea

Kirol Elkartek 25 urte beteko ditu laister. Hori dela eta azken 25 urteetan eta aurretik herrian izandako kirol ekimenen inguruko liburua prestatzen ari dira. Bilduma horretarako argazkiak edota istorioak dituenak, Jesus Urteaga edo Unai Azurmendirekin hitz egitea besterik ez du.

izal
IMAZ eta CONTRERAS
PINTURA eta PAPERGINTZA
☎ 943 187 049 - 943 187 045
Ondramuño baserria IDIAZABAL

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engraseak
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

☎ 943 18 72 57



AUSGEGI

Urdaneta, 41
☎-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✱ Tximini eta egurrezko ekonomiak
- ✱ Berogailuak
- ✱ Iturgintza
- ✱ Zeramika erakusketa
- ✱ Bainuko altzariak
- ✱ Erreforma osoak



Gabonak

Olentzeroren bisita

Abenduaren 24an, gabon kantuak eta Olentzero izango dira protagonista nagusiak. Goizean ikastetxeetako ikasle-irakasleen txanda izango da. Arratsalde partean berriz, 5ak aldera Igartza jauregitik abiatuko dira talde guztiak elkarrekin kantuan, Olentzero lagun dutela. Euskal Herriaren izaeran oinarritutako karrizak, bertsolari, dantzari eta Loinatz abesbatzakoak ere bertan izango dira.

Gabonetako oratorioa

Abenduaren 27an, Andra Mari Zeruratuaren parrokiari, 20:00etan, Juan Sebastian Bachen gabonetako oratorioa entzuteko aukera izango da, Loinatz abesbatzaren eta Donostiako Talde Barrokoaren eskutik. Gotzon Arrizabala arituko da zuzendari lanetan.

Arantxa Etxabe sopranoa, Ainhoa Zubillaga mezzo-sopranoa, Ion Etxabe tenorea eta Jesus G. Ar???jula bajurak batera. Musika erlijiosoaren barruan klasiko bat da Gabonetako oratorioa.

San Silbestre

Kirolak ere ohi bezala izango du bere lekua gabon hauetan. Abenduaren 31an San Silbestre proba korrituko da. Korrikalari asko izango dira eguerdiko 12etan irteeran.

Benito Lertxundiren kontzertua

Abenduaren 26an Benitok disko berriaren aurkezpena zuzenean egingo du Beasainen. Usurbe Antzokian 22:30etan izango da. Sarrera 12 euro kostako da.

Nekane Altuna

Kale-izen berriak

2002ko urrian Udaltzat egindako batzaraldian, orain erabakitzen ari diren Igartza aldeko kale berrientzat, ondorengo izenak onartu eta erabaki ziren:

- ✓ **Dulce Maria Loinaz plaza**, Foru kalearen eta Dolarearen arteko plazarentzat.
- ✓ **Dolare kalea**, Dolarea etxearen atzeko kalearentzat, biribilgunetik Dolareko parkeraino.
- ✓ **Igartzako plaza**, jauregiaren eta erroren inguruan geldituko den plazarentzat.
- ✓ **Peategi kalea**, Igartza-oletako zubi berritik trenbideraino Igartzako futbol-zelai berriaren alboan dagoen kalearentzat.
- ✓ **Usategi kalea**, Igartzako plazatik Peategi kaleraino doan kalearentzat.
- ✓ **Trenbide kalea**, trenbidearen alboan Barrendain plazaraino doan kalearentzat.
- ✓ **Errementaribidea**, lehengo Indar zen lekutik Oria ibaierantz, Errementari etxerantz egingo den kalearentzat.

Gainerako kale-muturrek, lehengo kale batzuen izenak hartu dituzte, haien luzapenak direlako: Zapatari kalea, Mendueuren etorbidea eta Nafarroa etorbidea, kasu kasu.

Lehendik azkenaldian onartuta dauden beste izen berri samar batzuk hauek dira: Igartzako futbol-zelaia eta Ezkierdiko parkea.

Beasain erdigunean OTA



Datorren urteko lehen hila-beteetan OTA jarriko dute Beasain erdigunean. Erauskin plazan eta Gernika pasealekuko aparkalekuan jarriko dute hain zuzen ere. Eman dituzten arrazoiak hauek dira: auto gehiagok aparkatzeko aukera izatea, izan ere, jende asko da erosketetara edo bertaratzen dena eta askok autoa ilara bihoitzean edo gaizki aparkatua uzten du edo adierazi duten bezala, tren hartzeko inguruko herrietatik autoz

etorri eta bertan egun guztirako uzten dutenak ere badira. Bestalde bertako bizilagunek, aparkaleku publiko hauek erabiltzen omen dituzte beren autoak uzteko beste guztiei aukera kenduaz.

Trafiko ugari ibiltzen da Beasainen eta norabideak aldatu ere egingo dira Igartza auzunean egiten ari diren obra guztiak bukatzen direnean eta era berean Zaldizurretako biribilgunea egiten dutenean.

Kultur taldeekin hitzarmena

Urte amaitez dagoenean eta Udala eta herriko elkarte edo kultur entitateen arteko hitzarmenen bidez araututako ekintza gutxi egitea falta direnean, Kultura Batzordeak aurtengo urterako sinatutako hitzarmenak berritzeko jarrera duela adierazi du. Beraz, hitzarmenarekin jarraitzeko interesatuak egonez gero esperientziaren ondoren sar daitezkeen aldaketak eta 2003. urtean egitea pentsatzen duzun programazioa prestatzen joateko adierazi dute, bertan, proiektuak eztabaidatzeko eta akordioak sinatzeko aukera izan dezaten. Aurtengo hitzartutako ekintzen memoria eta balantze ekonomikoa ere aurkeztu behar da akordioaren proposamenarekin batera. Hitzarmen horiek urtebeteko epea izango dute. Ekimen honekin helburu zehatz bat lortu nahi da, elkarte guztietako egitarauak aurrez ezagutuz, egutegiak hobeto antolatzeko aukera ematen du. Udalaren asmoa, birnegoziaketa ahalik eta azkarren egitea da.

Anbulantzia erosteko dirulaguntzak

Goierriko Gurutze Gorriak adierazi duenez beren zerbitzuak zabaldu eta berritu beharra ikusten dute. Guztira 15 milioi inguruko gastua izango dute. Jendeak lagundu dezan kontu bat ireki zuten Kutxan, baina badirudi orain arte ez dutela behar adina diru lortu, eta berriz ere deia luzatu die goierritar guztiei lagundu dezaitez.


AEK-k antolaturiko Eguberrietako azoka

Urtero bezala, Beasaingo Goiztiri euskaltegiak Eguberrietako azoka antolatu du. Aurtengoa euskal liburu, disko, bideo, korrikako materialaren eta joku azokaren XIII. ekitaldia izango da. Abenduaren 24a arte egongo da zabalik Zubimuzu plazan: Goizez, astearte, larunbat eta igandetan 10etatik ordu batera, eta arratsalde, egunero 5etatik 8etara.

Dioni handienen artean

Dioni Galparsoro txirrindulari ataundarrak, Euskaltel taldearekin sinatu berri du datozen bi denboraldietarako konpromisoa. Euskal komunikabideetan, Goierriatarraren azken alean barne, oihartzuna izan duen berri hau benetan pozgarria da, dudarik gabe, Dioni eta bere sendiarentzat, baina baita zaletu eta herritarrontzat ere. "Ezin duzu imajinatu ere egin zeinen pozik nagoen. Ezin hobeto lo egin dut eta entrenatzeko izugarritzko gogoekin jaiki naiz", adierazi zion Deia egunkari-kazetari bati berria jakitean.

Azken asteak gogor xamarak gertatu zaizkiola ere airtortzen zuen aipatu egunkarian. "Profesionalerara iga-



rotzea dexte kosta zait. Azken asteotan nahiko presionatua sentitu naiz, profesionalerako eskaintzarik inork ez zuela ikusten bainuen, nahiz eta azkenean zortea izan dudana (...). Gainera Euskaltelen aritzea berezia da niretzat, talde handia baita, eta etxekoa gainera..."

Euskaltelen erabakiaren berri izan baino aste batzuk

'Goierri atsegiña'

Goierriatarraren azken alean aditzera ematen zitzaigun eran, iritsi da gure etxetara Josetxo Zufiaurrek atondu duen 'Goierri Atsegiña' liburuxka. Bertan aurki ahal izango dugu 1956. urtean sortu zen Talleres Kerejeta S.L. eta bere inguruko informazioa. 16 langile dituen lantegi honek, urtean 7,21 miloi eurotako salmentak ditu. Bertan ekoizten diren piezak, lantegi berriarekin batean argazki bidez aurkezten zaizkigunak, Espainia, Frantzia, Alemania eta Portugalera ere esportatzen dira. Gure herriaren inguruko informazioa mugatuz, azken orrian agertzen den taulan, Goierri azalera handiena, 5.895 hektarea, duen herria Ataun dela ikusi ahal izango dugu. Bestalde, 1860. urtetik, Ataun Zegamarekin batera herriak nagusia zen garaitik hasi eta 2000. urtera arteko biztanleko kopuruaren bilakaeraren berri ere ematen digu egileak. 1860. urtean Goierriko herri populatuena zen gurea, 2.919 biztanle baitzituen. 2000. urtean berriz, erdiak gutxi gora behera, 1558.

Labur-labur

● San Martin egunean, urtero antolatzen den jubilatuentzako bazkariaren ostean, **Aitor Auzmendi** Herrigintza taldearen izenean alkate dugunak, legegintzaldi honen amaieran alkate-tza kargua uzteko bere asmoa adierazi zuen. Berarekin batera azken zortzi urteotan Udalaren gobernua jardun duten zinegotziak ere kargua utziko dute.

● **Azken asteotan zendu dira** Haundietxe txiki-ko Julian Imaz eta Aizkorondoko Maria Jesus Agirre. Doluminak sendiei.

Kultur ekitaldiak

Joxemiel Barandiaranen heriotzaren 11. urtemuga dela eta Ataungo Udalak ondorengo Kultur programazioa antolatu du eguberrietarako.

Abenduak 20, ostirala: 'Biblia osoa, gutxi gorabehera...' antzez-lana, 22:00etan, Herri Antzokian.

Abenduak 21, larunbata: Jorge Oteizak Joxemiel Barandiarani eskainitako eskulturaren inaugurazioa, 12:30ean, San Gregorion, Joxemiel hil zen eguneko urteurrenean.

Abenduak 22, igandea: Eate abesbatza eta Maite Idirin, 18:00etan, Herri Antzokian.

Abenduak 28, larunbata: Benito Lertxundiren kontzertua, 'Nire ekialdean' disko berria aurkeztuz, 22:00etan, Herri Antzokian.

Abenduaren 16tik 31ra, bulego orduetan, Argazki lehiaketaren erakusketa udaletxean.

lehenago, Relax taldearekin aritua zen negoziatuz, eta postua ere lortu zuen baina noski, Euskaltelen eskaintzaren berri izatean ez zuen dudarik egin. Aurretik Coast eta Lampre teldeekin ere izan zen harremanetan, baina horiek bertan behera gelditu ziren. Arrazoietakoa bat postu falta, gainera jendea soberan zutela eta txirrindulariak taldetik botatzen ere ari omen ziren.

Izan ere, aurtun inoiz baino zailagoa dago profesionalerara pasatu nahi dutenen afizionatuen egoera. Momentu gogorak izan omen ziren horiek Dionirentzat, baina, pertsona baikorra izaki, ez zuen etsi eta azkenean lortu du bere ametsa: profesionalerara pasatzea.

Hamaika urteko lanaren ordaina

13 urterekin hasi zen txirrindularitzan egun 24 urte dituen gazte hau. Afizionatueta azken 6 urteak Kaiku eta Caja Rualen eman ditu. Bereziki gogoan omen ditu Kaikun emandako urteak, Castaño edo Serrano bezalako txirrindulariak lagun. Caja Rualen eman dituen 3 urteetarik, azken biak omen ditu bereziki gogoangarri. Bere lorpenen artean berriz, Balentziagaren Memoriala. Baina horrez gain, azken denboraldian

hainbat sari eta garaipen eskuratu ditu. Hala nola, Caja Cantabria saria, Arabako Itzuliko etapa bat eta Ataungo proba. Gainera, bigarren postuan izatea lortu zuen Nafarroako Itzuliko sailkapen nagusian.

Erregularitasunaz gain, 24 lasterketetan lehen bost postuetan sailkatu baita, bere ezugarriak hoberenentzat aldatetan ondo igotzea eta talde txikietan azkarra izatea aipatzen ditu Dionik. Gainera, lasterketetan egoerak aurreikusten iaioa ere badela dio. Ezaugarri horiei probetsua ateratzen saiatuko da orain, eta gogoz gainera. Jakin badaki, afizionatuetatik profesionalerako saltoa zeinen gogorra den, horregatik, ongi prestatzea du orain helburu, denboraldiari hasiera on bat emateko moduan izan dadin.

Dionik lortu du bere ametsa, baina, ez da bera gure herriak eman duen txirrindulari profesional bakarra. J.R. Munduatek, Diario Vasco egunkari-ko kronikan gogorazten digun eran, 20 urtez aritu ziren Joxe eta Jazinto Urrestarazu punta puntako profesionalen artean. 30 urteko etenaren ostean hirugarren ataundar bat dugu bide berberari ekitear. Zorte on Dioniri eta zorianak.

Agurtzane Bikuña

Gabonen usainean agur urteari

Urtearen amaiera gainean dugun honetan, herria pixkanaka dagoeneko prestatzen ari da Eguberrietako festa egunak ospatzeko. Zenbait ekin-tza antolatu dira batean eta bestean, denak ere elkarren artean urteak eman duena go-goratzeko eta berrirako eska-riak egiteko helburuarekin.

Larunbat honetan bertan, Goruntz dantza taldeak dan-tzari guztientzat txistorra ba-natuko du. Osinalde elkartean izango da, arratsaldeko 5etan. Egun berean jarriko dute eli-zan usadio zaharrari men egi-nez Jesusen jaiotza irudia ere.

Hogeita lau izango da, noski, egun seinatua. Lauz-pabost lagun talde handi ibili-ko dira egun guztian etxez etxe gabon kantzak abesten,

egunsentian hasi eta ilun on-dorena arte. Aukera bikaina izaten da Gabon egun hone-tan kantuen aitzakian herri-ko baserriak bisitatzeko, urte-an behin badarik ere.

Urte Zahar egunean ere festa giroa izango da herrian. Arratsaldean zehar gazteen artean joko-lehiaketa modu-ko bat egingo da, eta ondore-neko errondak afal garaira arte iraungo du.

Labur-labur

- Eskulan ikastaroa. Udalaren ekimenez makrame ikasta-roa antolatzekoa da. Urtarrilean hasita eta asteen egun bate an 3 orduko klaseekin izango litzateke, 30 ordu osatu arte. Interesatuak dei udaletxera izena emateko (943 88 07 34).
- Posta zerbitzuak jakinarazi duenez, buzoi askotan izenak eta helbideak ez daude irakurtzeko moduan. Banaketan ho-rrek sortzen dituen zailtasunak eta nahasteak saihesteko ba-koitzak bere txartela egoki eduki dezala eskatzen da.

Mediku zerbitzuak aldaketak

Aurreko asteen hasi zituz-ten medikuaren kontsulta dagoeneko etxe behean berrikuntza lanak. Sendate-gia, itxarongela, komunak eta zerbitzu horretarako izendatutako lokalak guz-tiz berrituko dituzte. Gabi-riako udalak eta Osasun Sailak elkar hartuta egingo die gastuei aurre. Bitartean kontsulta udaletxera aldatu da; idazkari-etxean, udal bulegoen aldamenean, egongo da sendagilea egu-nero.

Aimar Maiz



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Zorionak eta Urte Berri on!

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN

URBITARTE
tolare
sagardotegia



Erretegi modura zabalik
Sagardoa txotxetik dastatzeko aukera

Tel.: 943 18 01 19

Ergoiena Auzoa

ATAUN

A H O L K U L A R I T Z A
GOENAGA ARANBURU

AHOLKULARITZA OROKORRA:

laborala,
soziala
fiskala
merkantila
kontablea.

GESTORIA:

ibilgailuak
garraioak
berrikuntzak
eskriturak.

*Eguberri
zoriontsuak denoi!*

☎ 943 16 00 65 Faxe: 943 16 03 59
J. M. Iturrioz, 6 BEASAIN

Mikel Telleriak 'Zaldiak hartuta' bere bigarren diskoa kaleratu du: 'Rockaren esparrua jorratu dut lan honetan'

Gasteizen bizi den idiazabaldar hau musikaren munduan bere lekuaren bila dabil. Eskolako atezain modura egiten du lan, eta bere denbora librearen zati handi bat musikari eskaintzen dio. Orain hilabete batzuk, aurrekoak baino rock kutsu handiagoa duen bigarren diskoa kaleratu du, berak sorturiko Kuma izeneko diskoetxearekin.

Ze ideiatan oinarrituta jarri diozu diskoari 'Zaldiak hartuta' izena? Zaldiaren erreferentzia aspal-diko mundu paganotik hartu dut. Zeltiar mitologian eta euskal mitologian askotan azaltzen den irudia da. Gabriel Arestiren esaldi batekin hasten da abestia: 'Ez dugu zaldirik, ez gara zaldunak'. Antzinako mitologian edertasuna, askatasuna eta noblezia sinbolizatzen zuen. Lan hau egitean pentsatu nuen balio horien aldarrikapena egitea.



Eta zer beste gai landu dituzu? Badago 'Gero' izeneko abesti bat, Axularren omenez egindakoa; 'Ekilibrista gisa' abestian nire burua modu horretan ikusten dut; 'Karibera goazelarik' argi gabeziari buruzko rock metafora bat da;

'Arroketan', berriz, diskoa amaitzeko kantu zeltiar lasaia da. Beste batzuk ere badira...

Bigarren diskoa da. Estilo eta musika aldetik aldaketak sartu dituzu edo aurrekoaren ildotik doa hau ere?

Erabateko aldaketa suposatzen du. Lehenbiziko diskoan kantak lasaigoak ziren, baina disko honetan beste esparru bat landu nahi izan dut, rockarena alegia. Hori jorratu nahi izan dut, eta eskaintza zabal eta irekiago bat egin. Diskoa bere osotasunean planteatu dut, lan oso bat bezala, lehen kantatik azkenera arte hari bat jarrai dezan. Rocka izan arren, ordea, tartean balada bat edo beste sartu dut arnasa hartzeko. Horregatik daude horren kanta ezberdinak.

Lehen diskoak Ruper Ordorikaren tankera zuen.

Neurri handi batean egia da, Ruperrek egin duen lan guztiak entzun baititut. Musika aldetik baina, disko honetako planteamendua bestelakoa da, zerikusi gutxi du harekin.

Esate baterako, 'Zaldiak hartuta', 'Gero' edo 'Karibera goazelarik' bezalako kantetan ez dago Ben Monderrek sortzen dituen gitarra-giro lasai horiek, rock arloko gitarra klasikoak baizik.

Diskoaren grabazioa zer moduz joan zen?

Hiru asteburutan grabatu genuen, Urdulizko Tio Pete estudioan. Emaizta aldetik nahiko gustura geratu naiz, diskoa grabatzeko denbora gutxi den arren.

Talde berarekin jarraitzen duzu, edo aldaketaren bat egon da?

Bai, aldaketak izan dira. Bateria Inaki Peña dago, baxuan Andrés Garrido eta Piano eta Hammond organoan Jabi Arteaga. Gitarra jotzen lehengoak segitzen du, Juanjo Unzillak. Eta diskoan, berriz, Koldo Uriartek pianoa eta Raul Romok saxo baritonoa eta tenorra sartu dituzte.

Diskoetxe berri bat sortu duzue, gainera.

Hala da, Kuma izeneko diskoetxe berri bat sortu dugu.

INÁUSTI

KARROZERIA

N-1 errepidea, lurre auzoa
© 943 88 43 01 OLABERRIA

KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxa: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

'Zaldiak hartuta' da kaleratu dugun lehen diskoa, eta orain gutxi bigarrena kaleratu dugu, IlunaBar taldearena. Besteak beste, Hemendik at-eko kantariak daude, Stella eta Edurne, Pitti, Celtas Cortos-eko gitarra, Gorka Hermosa Zumarragako soinu-jolea... Azken honek sortutako taldea da. Triki-rock, triki-pop estiloko musika freskoa egin du, oso berritzailea.

Beraz, mundu berri baten muturra sartzeraz arazatu zarete?

Bai, ausartu gara jakinda oso mundu zaila dela eta lan handia egin behar dela gauzak itxurantzean ateratu daitezken. Ikusi egin behar nola moldatzen garen.

Xabier Montoiak euskal musika sasoi onean dagoela, baina publikoak falta dela esan du orain gutxi. Zuk zer diozu?

Guk nabaritzen dugu publiko aldetik ez dagoela multzo handirik. Baina, ez da estilo jakin batean gertatzen, guztietan baizik, nahiz rocka izan ala folka. Musika mota ezberdin asko egiten da eta inoiz baino eskaintza gehiago dago. Hala ere, nik uste dut motibazioa falta dela; hau da, musika berriak sortu eta horiek bultzatzea.



Beste musikari batzuk, berriz, zirkuitua falta dela diote?

Zerbait badago. Kultur Errota hor dago, eta Gaztetxeek ere beren zirkuitu propioa dute. Baina egia da ez dagoela halako zirkuitu indartsu eta egonkorrik. Bestalde, ikusten dudana arazoa zera da: musika jendearengana iristeko zailtasun handia dagoela, batik bat, komunikabideei begira. Beste herrialde batzuetan komunikabideetan bertako musikariak tartea ematen zaio, Katalu-

nian, esate baterako. Portzentaje handia edo txikia bertako musikarekin betetzen dute. Baina hemen bestelako kontuak daude. Negargarria da.

Baina beno, bigarren diskoa ateratu duzu, argitaletxea sortu duzu... Baikor egoteko moduan izango zara, ezta?

Baditut nire zalantzak, ez pentsa. Baina saiatu behintzat egin beharra dago. Ilusioa badaukagu eta gogoia ere bai.



Egilea: Mikel Telleria

Diskoaren izena: Zaldiak hartuta

Diskoetxea: Kuma diskak

Abestiak: Zaldiak hartuta, Esan zuek, Gero, Ekilibrista gisa, Zure joaitian, Argazkia, Abiatzean, Karibera goazelarik, Arroketan.

Web gunea: www.kumadiskak.com

Kontzertu aldetik eta, zer moduz?

Kontzertuak eman ditugu azaroan Gasteizen eta Agurainen. Durangoko Azokari begira buru belarri aritu gara eta Gabonak ere hor ditugu. Pixkanaka kontzertu batzuk lotzen hasi gara.

'Deklarazioa' diskoa orain bi urte eta erdi atera zenuen. Abeslari modura noiz hasi zinen?

Kontua da abesti batzuk egin da nituela, eta horiek ezagutzera eman behar nituela erabaki nuenean osatu genuen taldea. Diskoa grabatu eta gero kontzertuak etorri dira, berrogei edo. Bartzelonan ere izan ginen tartean. Eta konturatzera halako mundu berrian zaude lanean, kasik zergatik ere ez dakizula. Orain bigarrena ateratu dugu eta hariari jarraitu behar.

Diskoetxe berria sortzeak ere lana emango dizu, ezta?

Bai, batez ere promozio lana eta taldeak bideratu beharra... Durangon ere postu txiki bat jarri genuen, eta pozik, esperientzia berri bat izan da guretzako. Diskoetxea sortzeak musika mundua beste ikuspegi batetik ulertzea ekarri du.

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Isuses industrialdea - ARAMA

Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17


**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordue: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ezk. - BEASAIN



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxe: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

**ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.**

ZINEA

ITSASONDO:

Abenduak 20: 'Nueve Reinas', 22:00etan, Ertotxen.

Urtarrilak 10: 'El hijo de la novia', 22:00etan, Ertotxen.

BEASAIN:

Abenduak 21: 'Doraemon eta hego itsasoetako piratak', 9:30ean, Usurbe Antzokian.

Abenduak 28: 'Peter Pan', 9:30ean, Usurbe Antzokian.

GOIENIZ:

Abenduak 19: 'Berlin esta en Alemania', 21:00etan, Usurbe antzokian.

'Berlin esta en Alemania'
Jaime Camino
(Alemania, 2000)

Martin Schulz 36 urterekin Brandenburgoko espetxetik atera berria da hamaika urte giltzapean eman ondoren. Beraz, RDAko hiritar honek ziega barruan bizi izan zuen Berlingo harresiaren suntsiketa. Irtetean bere gauzak berreskuratu ditu: RDAko nortasun agiria, gidatze baimena eta diru apur bat karteran. Martin bere etxerantz doa itxaropentsu, baina galduta dago Berlin berrian eta hotel merke batean hartuko du ostatu, bere emaztearen eta 11 urteko semearen bila hasteko.

hitzaldiak

LAZKAO:

Abenduak 18, 'Globalizazioa' izeneko hitzaldia eskainiko du Karmelo Urdangarinek, 19:00etan, Kultur Etxean.

musika

ORDIZIA:

Abenduak 20, Sin Red talde goierritarraren kontzertua Sugaar tabernan, 22:30ean.

ATAUN:

Abenduak 22, Eate abesbatza eta Maite Idirinen kontzertua, 18:00etan, Herri Antzokian.

ORDIZIA:

Abenduak 22, Santa Ana abesbatzaren Eguberri kontzertua, 20:00etan, elizan.

BEASAIN:

Abenduak 26, Benito Lertxundiren kontzertua, 22:30ean, Usurbe Antzokian.

Abenduak 27, Loinatz Abesbatzak eta Donostiako talde barrokoaren kontzertua, 20:00etan, Andra Mari Zeruratuaren Parrokian.

ATAUN:

Abenduak 28, Benito Lertxundiren kontzertua, 22:00etan, Herri Antzokian.

ZEGAMA:

Abenduak 29, Orkatz txiki abesbatzaren 'Txori metereologoa' ipuin musikala, 19:00etan, elizan.

ORDIZIA:

Urtarrilak 4, Pantxo eta Peioren disko berriaren aurkezpena, 22:30ean, Majori kiroldegian.

bestelakoak

ORDIZIA:

Abenduak 21, 'Gabonetan ipuin kontari' zikloaren barruan Pello Añorga ipuin kontalaria, 11:00etan, Barrena Kultur Etxeko liburutegian.

LAZKAO:

Abenduak 27, Alex Rabanalen umorezko bakarrizketak, 19:30ean, Kultur Etxean.

IDIAZABAL:

Abenduak 30, Bilin Bolon zirkoaren emanaldia, 17:00etan, Igarondo pilotalekuan.

bertsoak

ZALDIBIA:

Abenduak 20, Xabier Amurizak Lazkao Txikiren bertsoak abestuko ditu, 22:15ean, Herriko Antzokian.

ORDIZIA:

Abenduak 28, Amets Arzallus eta Sustrai Colina, 22:30ean, Barrena Kultur Etxeko batzar aretoan.

antzerkia

BEASAIN:

Abenduak 18, 'In love with Shakespeare' antzezlan, 12:30ean, Usurbe Antzokian.

Abenduak 20, Ordiziako Urrup taldearen 'Susie' antzezlan, 20:00etan, Usurbe Antzokian.

ORDIZIA:

Abenduak 20, 'Hau Paraderoa', 22:15ean, Herri Antzokian.

ATAUN:

Abenduak 20, 'Biblia osoa gutxi gorabehera...' antzezlan, 22:00etan, Herri Antzokian.

Eguberri zoriontsuak denoi!

Oiarbide

San Inazio, 14
☎ 943160434
BEASAIN

Laskurain, 12
☎ 943653786
TOLOSA

Oinetakoak

berriz aranburu

ERROPADENDA

Zorionak eta Urte Berri on!

Nagusia, 8 ☎ 943 88 04 53 **BEASAIN**

LEGORRETA:

Abenduak 26, Sebastopolleko Titiriteroen 'Gaur egungo ipuinak', 18:00etan, Herri Zineman.

Abenduak 27, Dar-Dar taldearen 'Pinotxo', 19:30ean, Herri Zineman.

ZALDIBIA:

Abenduak 28, 'Pinotxo' antzezlanaren eskutik, 16:00etan, Herriko Antzokian.

BEASAIN:

Urtarrilak 3, Beasaingo Errail taldearen 'Gurasoak nork nahi ditu?' antzezlanaren eskutik, 20:00etan, Usurbe Antzokian.

Urtarrilak 4, 'Alizia bitxikerien lurraldean' antzezlanaren eskutik, 17:00etan, Usurbe Antzokian.

BEASAIN:

Urtarrilak 12, 'Egiptoko ihesaren kale antzezpena', 13:00etan, Lazkao Txiki zelai inguruan.

erakusketak

ORDIZIA:

Abenduaren 20an, AEK-k antolatutako 'Gabonetako postalen Lehiaketaren' erakusketa.

LAZKAO:

Abenduaren 22ra arte, 'Lazkaotarrak hirugarren munduan bisitari' argazki erakusketa, Kultur Etxean.



ORDIZIA:

Abenduaren 23a arte, Aitor Larrañaga artista zarauztarren lanak ikusgai Barrenan.

BEASAIN:

Abenduaren 20tik 29ra, Socorro Gomezen lanak ikusgai, Usurbe Antzokiko erakusketa gelan.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Abenduak astegunetan: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.

Abenduak 21-22: Atorrasagasti (Bustuntza auzoa, - Ordizia). 943 882934.

Abenduak 28-29: Cuesta (Nafarroako Etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

2003ko astegunetan: Jauregi Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.

Urtarrilak 1: Jauregi Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.

Urtarrilak 4-5: Jauregi Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949

Urtarrilak 11-12: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880232.

LAZKAO:

Abenduaren 22ra arte, 'Lazkaotarrak hirugarren munduan bisitari', argazki erakusketa, Kultur etxeko erakuskea gelan.

Urtarrilaren 2tik 12ra, 'XVI.-XIX. mendeetako Euskal Herriko jantziak' erakusketa, Kultur etxeko erakusketan gelan.

pailazoak

LAZKAO:

Abenduak 19, Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazoak, 17:00etan, Joxemiel Barandiaran kiroldegian.

ZALDIBIA:

Abenduak 27, Potxin eta Patxin pailazoak, 16:30etan, Herriko Antzokian.

**LIBURU DISKO BIDEO JOKU
AZOKA
BEASAINEN**

NOIZ: Abenduaren 13tik 24ra zabalik (biak barne)

NON: Zubimuzu plaza - BEASAIN

ORDUTEGIA:

Goizez: Astearte, larunbat eta igandetan 10etatik 1era.
Arratsalde: Egunero, 5etatik 8etara.

LAGUNTZAILEA: Beasaingo Udaleko Euskara Batzordea

ANTOLATZAILEA:

GOIZTIRI



IKASTEK AKADEMIA

Joan Iturralde, 5 BEASAIN
☎ 943 160 120

ESKOLA LAGUNTZA

- ✖ Lehen hezkuntza, DBH
- ✖ Batxilergoa
- ✖ Moduluak, Zikloak
- ✖ Unibertsitate-maila

GOIERRIKO UNIBERTSITATEA

- ✖ Marrazketa teknikoa
- ✖ Fisika
- ✖ Matematika
- ✖ Teknologia

TAILERRAK

- ✖ Ortografia, Idazmena
- ✖ Irakurmena, Ulermena
- ✖ Matematika, Kalkulua

IKASKETA ARAZOAK

- ✖ Atentzioa
- ✖ Ohiturak, Metodoak
- ✖ Emozioen kontrola

www.ikastek.net
ikastek@ikastek.net

Etxebizitzak

salgai

➔ Donostiako gelto-kiaren ondoan dagoen pisua salgai. 130 metro koadro. 605764355.

➔ Ordizia erdian pisua salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Kanpoaldera ematen du. 653709587.

➔ Etxebizitza salgai Ormaiztegin. 96 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Kanpoaldera ematen du. 617758961.

➔ Ordizian pisua salgai. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. 943161735.

Mandio inmobiliaria

Laskurain kalea, 3 Tolosa
Telf: 699936801

✓ **Idiazabal.** Pisua salgai. Bi logela, ganbara eta garaje itxia-ekin..

✓ **Etxebizitza ados-
tua** salgai bere terre-
noarekin.

➔ Lazkaon pisua sal-
gai. Herri erdian, plaza-
ren ondoan. 943881627.

konpartitu

➔ Gasteizen pertsona
bat behar da pisua kon-
partitzeko. Bakarkako
logela eta berogailu
zentrala. 637990159.

errentan eman

➔ Urbasako mendile-
rroan etxea alokatzen
da asteburu, zubi eta
oporretan. 943533981.

Garajea

salgai

➔ Beasaingo Erauskin
kalean 100 m²ko gara-
jea salgai. Prezio inte-
resgarria. 630931449.

➔ Zaldibian garajea
salgai. Auto batentzako.
943881978.

Negozioa

salgai/alokairuan

➔ Sagardotegia aloka-
tzen da jubilazioagatik.
Bezera finkoa. Errendi-
mendu ona. Pertsona ar-
duratsua ete esperien-
tziaduna eskatzen da.
Informazio pertsonala.
676049931

Bestelakoak

salgai

➔ Masajeak emateko
'Ekopostural' markako
kamila salgai. Berr-be-
rria, 70x182 cm.
687865494 (Aitziber).

➔ Erabilitako paletak
salgai. 943885950.

➔ Sutarako egur iha-
rra salgai. Bi metrora
moztuta. 943723504.
Iluntzetan deitu.

➔ Garbiketak egiteko
desbrozadora salgai.
943800174.

➔ Errezil sagar ekolo-
gikoa salgai. Oso ona.

Mutiloa. 943160986.

➔ Egurrezko sukaldea
salgai, Wamsler marka-
koa. Bi urte, berri-be-
rria. 943180020. Gaue-
tan deitu.

➔ Bi ordenagailu sal-
tzen dira (Pentium III)
bat grabadorekin eta
bestea inpresorekin.
Ondo zainduak. Prezio
interesgarriak.
943800193 /
639638939. Leire

➔ Gaueko tarifarekin
kargatzeko bi bero aku-
muladore elektriko sal-
tzen dira. 943027962

➔ Acesol A-II radia-
dore termoelektrikoa
salgai. Batare erabili
gabea. 8 urteko garan-
tiarekin. 240 euro.
600432352/943084375

➔ Kalefaziozko erra-
diadoreak salgai, burdi-
nezkoak. Oso ongi zain-
duak, egoera onean.
943801198

➔ Drimcast konsola
salgai. Bi mando, visual
memory eta joko ugari.
Prezio onean. Iker.
647832448.

➔ Snowboard ohol be-

rria salgai. Free-ride
modelo. Rossignol
etxekoa (1,60en neurri-
koa). 943085974
(eguerdietan deitu).

➔ Sutarako haritz egu-
rra salgai. 2 metrora
moztua. 5 pezeta kilo. 5.
Lazkaon. 676882842.

➔ Muskulazio aparai-
lua salgai, Ketler mar-
kakoa. 943693064.

opari

➔ Bi ohe turkiar eta bi
ohe-horma. 1,80 x 0,90
neurrikoak laurak.
943450697

Ibilgailuak

salgai

➔ Ergo markako kara-
bana salgai, sukaldeare-
kin. 2.100 euro.
669800758. Eburne.

➔ Suzuki maxi moto-
rra salgai. Bi hilabetez
erabilia. 669800758.
Eburne.

lues rothers
BEASAIN

Aholkularitza
ASEPLAN
Abokautak - Ekonomilariak
Tel.: 943 887 129
Oriamendi Kalea 15, behea BEASAIN

- ✓ Enpresen asesoria eta gestioa
- ✓ Etxebizitza salerosketa
- ✓ Etxeko jabeekideen
administrazio-lanak

txekin

m
Mendizabal, C.B.
ITURGINTZA - BEROGINTZA
Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

X A X O
KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
☎ 943 02 73 55 Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

eskaerak

➔ Volkswagen Caravel markako autoa salgai. Zortzi plazatak. 620256197.

➔ Opel Astra markako autoa salgai. 1.4 injekzioa. SS-AP. Egoera onean. 943882156. Iluntzetan deitu.

➔ Bultaco Lobito markako motoa salgai. 1993. urtekoa. 1000 euro. 639663569

➔ Golf TDI, 90 zaldikoa, salgai. 96. urtekoa. Ondo zaindua. 676205806.

➔ Renault Safrane 2.1 TD salgai. 1993. urtekoa. Egoera oso onean. 943027222 (20:30etik aurrera deitu).

➔ Renault Espace furgoneta salgai. SS-AP. 615722521-943027285

➔ Ford Orion 1600 markako autoa salgai. Egoera onean. SS-AG. 943889072 (8etatik aurrera).

➔ Peugeot 306 markako kotxea salgai. 1.900 diesela, SS-AV matrikuladuna. Egoera onean dago. 649455990

➔ Opel Vectra GT 2000 salgai. 656782185.

➔ Uretako motorra Kawasaki ZXI 900 salgai. 676063124

➔ Peugeot 306 style turbo diesela salgai. 5 urte. Urdin metalizatua. 5 ate. 945174695.

➔ Range Rover TDI salgai. 696999128. Arratsaldean deitu.

➔ Golf GTI salgai, 2.0, III. edizio berezia, aire egokitua eta beste hainbat extra (e.e., alar-me, llantak...). 7 urte. Kilometro gutxi. Oso egoera onean. 7.800 euro. 615739156.

➔ Honda CBR 600 motorra salgai. SS-AJ. Egoera onean. 1.800 euro (300.000 pezeta). 620 227 773.

Lana

eskaintzak

➔ Gazte bat tabernan lan egiteko eskaintzen da. 678914302 (Iñaki).

➔ 18 urteko neska bat eskaintzen da lanerako, bai dendatan, bai haurrak zaintzeko. Ordiziarra. Euskalduna. 615782184. Saioa.

➔ Beasaingo 25 urteko neska prest dago arratsaldeetan haurrak zaindu edota dendari lanetan aritzeko. Lanaldi oso edo erdirako. 687374559. Sonia.

➔ Ogi banatzaile bat behar da. Euskalduna izatea derrigorrezkoa da. 615749901.

➔ Idiazabalen neska bat behar da haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 679389420

Administrari laguntzaileria. Hurrengo deialdiak. Presta zaitez 943444182.

Suhiltzaileak. EAEko parkeetan lan egiteko presta zaitez. Eskola graduatua beharrezkoa da. 943444182.

Administrariak. Foru Aldundirako 101 lanpostu deialdi. Baldintza: eskola graduatua. 943444182

Basozaina. EAEko parke naturaletan lan egiteko. Baldintza eskola graduatua. 943444182.

Udaltzaina. Laister deialdiak udaletxeetan. Eskola graduatua beharrezkoa. 943444182.

Liburutegiko laguntzaileria. Laister deialdiak udaletxeetan. 943444182.

Gizarte langilea. Informa zaitez. 943444182.

Udal langileak. Garbitzaileak, lorazainak, gidariak. Informa zaitez. 943444182.

Garraiolaria. Lortu tituloa garraioan lan egiteko. 943444182.

Basozainak. EAEko parke eta natur erretsebetan lan egiteko presta zaitez. 943444182.

Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401

ELEKTRIKARIA

Goierri. Erref. 92265/3

AZAFATAK

Olaberrian. Erref. 92470/2

KONTULARIA

Goierri. Erref. 91892/2

PROMOTOREA

Donostialdean. Erref. 92518/1

KOMERTZIALA

Donostialdean. Erref. 92708/3

IGELTSARI-LAGUNTZAILEA

Tolosan. Erref. 92736/3

ERREMINTARIA

Tolosaldean. Erref. 92486/1

KAMIOIENTZAKO MEKANIKOA

Tolosaldean. Erref. 92478/3

ITALIERA IRAKASLEA

Tolosan. Erref. 92213/3

TOPOGRAFOA

Donostialdean. Erref. 90964/2

KALITATE KONTSULTARIA

Donostian. Erref. 92011/2

➔ Okindegi baterako saltzailea behar da. 615749901.

➔ Tabernarako langile bat behar da. 943887197. Juan Mari. Interesatuak 11:00etatik 12:00etara deitu.

➔ Ordiziako Herriko tabernan lan egiteko sukaldari bat behar da. 630931454

➔ Gazte bat behar da Ordizian igeltseritzan lan egiteko. 617566744.

oskarbi

oinetakoa

Tel. 943 88 41 04
Kale Nagusia 34 BEASAIN

Tel. 943 88 19 44
Kale Nagusia 25 ORDIZIA

Eguberri
zoriontsuak
opa dizkizuegu
giztioi!

Garbitasunak

OXEPI

943 88 96 67 ZALDIBIA



Legorretako bigarren jaunartzea 1966. urtean

Maritxu Dorronsorok utzi digun argazkikoak Legorretan 1954.an jaiotakoak dira, bigarren jaunartzea egin zutenean.

Goian: Joxe Ramon Ugarte, Joxe M^a Garin, Joxe M^a Ormaetxea, Rufino Lasa, Joxe M^a Iturrioz, Santi Sanz, Jesus M^a Iturrioz, eta Ignazio M^a Aranburu. Erdian: Juan Peñagarikano.

Behean: Arantxa Kerejeta, Azucena Fernandez, M^a Jesus Esnal, Maite Esnal, Begoña Goia, M^a Karmen Blazquez, Paquita Arroyo, Maite Altuna, Lurdes Amundarain, M^a Angeles Gastesi eta Maritxu Dorronsoro.

 **PALACIO ORIENTAL**
JATETXE TXINARRA
東園酒家

✕ Kalitate eta zerbitzu hoberena
✕ Etxerako zerbitzua Goierri osoan

☎ 943 725 243 Labeaga, 33 H URRETXU

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 2 behea ORDIZIA

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

txekin

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble agentzia

Urte berri on!

GOI·ETXE s.a.

Filipineta, 13 - behea
ORDIZIA
☎ 943 88 49 50

ORDIZIAN ETA BEASAINEN, KALITATERIK ONENeko ERAIKUNTZAK:
ETXEBIZITZAK, APARTAMENTUAK, LOKAL KOMERTZIALAK ETA GARAJEAK

OTEGI
ARMATEGIA

Zorionak eta Urte Berri on!

Tel. faxa: 943 16 30 26
Goierri kalea, 10 ORDIZIA

Migdaïla




Eguberri jai zoriontsuak denoi!

*Gabon
deskontuak*

Jantziak Pitxiak...





SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA



Urtebete egin dugu gure zentru berrian, behar guztiak asetzeko erabat horniturik dagoena; elbarrituentzako guztiz egokitutako instalakuntzetik hasi eta zure ongizatea lortzeko behar diren guztiak zaindu ditugularik. **Teknologi aurreratuenak zure esku** jarri, gure lan talde espezializatuak norbanako tratamendu egokienaz landuko ditu zure beharrak, bai **inplantologi, estetika** edota zirugi mailan.

Erabateko hortz klinika integratua.

SMC

ERABATEKO

GURE INSTALAKUNTZAK ELBARRITUENTZAT

HORTZ

ERABAT EGOKITUAK DAUDE, KLINIKAK SAN

KLINIKA

INAZIO KALE BERTARA EMATEN DUELARIK

INTEGRATUA



Teknologia, profesionaltasuna eta arreta, zerbitzu bakar batean bateratuz, giro goxo batean, zerbitzurik hurbilena eskeiniz, dentistarekiko zure ikuspegia aldatuko dugu.



TEL./FAX: 943 88 92 87

SAN INAZIO KALEA, 2

20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)